

**Prekarietatea**

Etxeko lanetan
diharduten
emakume etorkinak

Dominique Bacho

EH Bai

«Departamenduko
bozetan barnealdean
ditugu aukera onenak
zerbait erdiesteko»

Antxoa

Bikoitza harrapatzeko
baimena eman dezake
Europako Batzordeak

Zeliakoak

Otordu bakoitza
hiru aldiz garestiago
ordaintzera
derrigortuak

Euskara


Nola erabili
soziolinguistika
errealitatea
eraldatzeko

Net Hurbil

Jakietan daukagu
gure eguneroko
pozoia

TARIQ ALI
nazioarteko analista

«Herrialde arabiarrentzat
hamarkada
erabakigarria dator»





Komunikazio
biziaren
harribitxia

Oparitu  **argia** harpidetza
independentzia astero ikusten da

Urte osoko harpidetza Hego Euskal Herrian 138 € | Ipar Euskal Herrian 168 € | 943 37 15 45 | harpide@argia.com



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



**gizarte
kutxa**
zugandik zuzana



• **NON ZER** •

2011ko martxoaren 6a, 2.267. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Alvarez Rabo:** «Eme haragia kafesnea baino gehiago gustatzen zaib». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **Emakume etorkinak etxeko lanetan.** Gaizki ordainduak, gaizki tratatuak. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 5

Pertsonaia

- **Tariq Ali:** «Mundu arabiarra hau egiteko zain zegoen aspalditik». GORKA BEREZIARTUA / 10

Gaia

- **Zeliakoak.** Oinarritzko jana garesti. MIKEL GARCIA / 15

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Irlak itsasoan bezala. JOSÉ LUIS PADRÓN / 18
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- Kontsumo taldeetatik Gazara. CARMEN VALOIS / 20
- **Txandan** Edertasuna eta adina. JUAN RAMON MAKUSO / 20
- Guk ere demokrazia. IXABEL ETXEBERRIA / 21
- Martxoaren 8a: aldarrikapen feministek 100 urte. NEKANE ALONSO SANTAMARIA / 22

Erdiko kaiera

- **Korrika kulturala.** Euskara, ikus-entzunezkoetatik bakarrizketara. UXUA LARRETxea / 23
- **Zuberoako maskaradak.** Kabana euskaldun bat den artean... UNAI BREA / 27
- **Liburuak** GEMA LASARTE / 28
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 29
- **Ezpalak** JON TORNER / 30
- **Abarrak** JON TORNER / 31
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 34
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 35
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

Termometroa

- **Dominique Bacho:** «Guhaurek sozializatu behar ditugu geure ideiak». MIKEL ASURMENDI / 37
- Biomasa bikoiztu egin da eta antxoaren kanpaina ona dator. DANIEL UDALAITZ / 42
- **Soziolinguistika.** Jakintza tantak kontzientzian eragiteko. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Jakietan daukagu gure eguneroko pozoia. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- Eroa izan. ITXARO BORDA / 50



“Eme haragia kafesnea baino gehiago gustatzen zait”

Alvarez Rabo | Saltzailea

Ostiral arratsalde arrunta
Bilboko ‘Corte Inglés’-en...

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Alvarez Rabok utzia

Aizu, zure aurpegia, tira, zure galtzerdia ezaguna egiten zait...

Galtzerdia jantzi behar izaten dut beti ezagut nazaten...

Bietako bat: edo Marcos komandante-ordea zara edo abizen hain... luzeko komikilari hura.

Marcos komandante-ordea ere Bartzelonako *Corte Inglés*eko saltzailea izan zen, ez da txantxa, Fernando Savaterrek esan zidan. Eta nire abizenak 24,3 zentimetroko luzera eta 5,1 zentimetroko diametroa du, gutxi gora-behera.

Barkatu baina, zuk ez al zenuen zeure buruaz beste egin?

Zoritzarrez, artistikoki baino ez nuen neure buruaz beste egin, baina eman denbora pixka bat.

Suizidio artistikoa, noski... Orain gogoratzen ditut zure marrazkiak!

Nire marrazkiez gogoratzeak leku eskasean uzten zaitu. Beste gauza batzuk gogoratuko nituzke nik: lehen muxua, lehen amodioa, lehen kanpai jotzea...

Buztanarekin marrazten zenuela ere esaten zen. Nekagarria behar du.

Egiazki, behin bakarrik egin dut eta nekagarria baino ezerosoa izan zen.

A, baina jende inteligentearentzako komikiak ziren.

Zalantza dut pertsona inteligente eta kultuek komikiak irakurtzen denbora galtzen dutenik.

Publiko femeninoarentzat marrazten zenuen, batez ere.

Bada, bai, eme haragia kafesnea baino gehiago gustatzen zait.

Lastima haiei txorta ez gustatzea.

Gordin zaude oraindik: eme gazteek txorta gustuko dutenaren plantak egiten dituzte, moderno agertzeko.

Indiskreto izan nahi gabe, *Princi-pito* edo *Letizia*, bietako norekin pasa zenuen hobeto?

El prínci-pito komikiarekin. *Letizia y el sexo*-ekin, emazteak argitaratzea debekatu baitzidan, *coitus interruptus* bat izan nuen.

Horrelako uneak berriz bizitzeko ez duzu faltan buztana erabiltzea?

Adinarekin gauzak faltan baino soberan izan ohi dira.

Beste astakeriarik?

Ez zait batere gustatzen ikurrina, Gabonetako bandera bat dirudi. Nahiago dut mila aldiz espainiarra, bere koloreek bizitzeko gonbita egiten dute, Martiniak bezala. ■

Emakume etorkinak etxeko lanetan **Gaizki ordainduak, gaizki tratatuak**

Urrun daukaten familia mantentzeko asmoz etorri da emakume ugari.
Sexu langile edo etxeko langile dira. Ia denek adinekoak zaintzen dituzte.
Sarri ikusezin dira, etxe barruan eta ilegal dihardutelako.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Argazkia: Dani Blanco



Artxiboko irudian zaintzailea adinekoarekin pasean.

SILVIA CARRIZO Zumaian (Gipuzkoa) daukan goxoki-dendan aurkitu dugu. Goizez aritu gara berriketan. Bazkalondorenetan, etxetan lanean ari diren emakume etorkinak joaten zaizkio hitz eta pitz aritzera, beti ere atsederako baimena dutenak.

Argentinarra da Carrizo eta urteak dira hemen bizi dela. Malen (emakumea, maputxeraz) Etxearen sortzaileetakoa da. Emakume etorkin hegoamerikarrek osatzen dute

Malen Etxea. Elkartearen helburua emakume atzerritarrei lurralde berriko eremu politiko, ekonomiko eta sozialean aurrera egiten laguntzea da.

Etxeko langile horietako batzuk ez dira Carrizoren dendara gerturatzen eta argentinarrak kalean agurtu ere ez ditu egiten: “Hedabideetan hainbat etxeko langileren lan baldintza kaxkarrak salatu izan ditugu. Hemen inguruko herriak txikiak dira eta

Brenis Bermúdez, etxeko langilea “Krisian ez dago integraziorik, aldapa gora jarri da guretzako”

ARGIA



Elkarrizketa San Sebastian egunean egin genion Azpeitian (Gipuzkoa). Konbertsazioa emate aldera galdetu genion ea umeen danborrada ikusi zuen: “Seme-alabak dauzkat eta...”, ez genion ondo entzun esaldia eta: “Seme-alabak danborradan atera dira?”, “Ez, bost seme-alabak Hondurasen daude”.

32 urte dauzka, eta egunak beharko litzuke Hondurasetik alde egin zuenetik (duela bi urte) bizi izan duena kontatzeko. 17 urteko bikiak ditu eta ezkondu ondoren hiru seme-alaba izan zituen, orain 12, 11 eta 9 urtekoak. Senarra Nikaraguara joan zen lanera eta beste emakume batekin geratu zen. Bermúdez lana aurkitu ezinik zebilen, bost seme-alaben ardura osoa zuen eta senarrak zorrak utzi zizkion. Bankuak kontu korrontea eta etxea eraikitze-ko zeukan lur zatia kendu zizkion. “Nik ez nuen inoiz pentsatu bidaiatzea, besteak beste bost seme-alaba ditudalako, baina egoera oso larrian nengoen”.

Honduras, Paris, Zumaia. Nolakoa izan zen Euskal Herrira iristea?

la urtebetez egon nintzen hemen lanik egin gabe. Ateak jotzen nituen, baina batere ez zen irekitzen. Zarautzen dokumentazioa lapurtu zidaten. Ate guztiak jo nituen, zer ez nuen jo! Moja batzuengana ere joan nintzen eta ateko leihatila itxi zidaten, ezer esan gabe. Ez nintzen berriz itzuli. Ez nekien norengana jo. Hemen gaizki nengoen, Hondurasetik bankua atzetik neukan eta haurrengandik banatu izanaren mina neukan.

Urtebetez bakarrik ibili al zinen?

Neskekin [emakume etorkinekin] ibili nintzen, baina urtebete pasa eta lanik ez nuela aurkitzen ikusita albo batera utzi ninduten. Mutil batek esan zidan galdutako paperak errekupeatzeko nola egin behar nuen. Baina nik beldur handia nuen, ez neukan ez lanik eta ezta paperik ere. Jaioterrira bidaliko nindutela uste nuen, eta kalera ateratzeko ere beldur nintzen. Ertzaintzara joateko esan zidaten salaketa jartzera eta joan egin nintzen. Ordutik ateak irekitzen hasi zitzaizkidala sentitu nuen, oso harrera ona egin zidaten. Gero Silvia [Carrizo] hasi zitzaidan laguntzen... Nire historia oso luzea da...

Lehenengo lan egonkorra Zumaian aurkitu zenuen.

Ordura arte garbiketa lan asko egin nuen, baina nik lan egonkorra nahi nuen. Eduki dudana lanik okerreana izan zen. Oso gaizki tratatu ninduen etxeko aitak. Igandean lau-bost ordu izaten nituen libre aste osoan. Janaria ukatzen zidan eta jo egin nahi izan ninduen. Esan nien

nahiz eta izenik eman gabe egin, etxeko nagusiek jakin dute beraietaz ari ginela. Batzuek hala esaten diote aste osoan etxean lanean daukaten emakumeari: ‘Ez zaitut ikusi nahi dendakoarekin’. Guk lan baldintza txarrak salatu egiten ditugu”.

Geriatrakoan 3.000 euro

Euskal Autonomia Erkidegoan, emakume atzeritarren %89 etxeko lanetan aritzen da. Gainerakoek ostalaritzan edo sexu lanean dihardute. Etxeko langileak garbiketan, ume zaintzan, eta batik bat, adinekoak zaintzen ari dira. Kanean ikusten ditugu zaharrekin pasieran, alabaina, ikusezinak dira arrazoi bikoitzagatik: batetik, eguneko ordu gehienetan etxe barruan jarduten dute lanean, eta bestetik, ilegalak dira.

Hein handi batean gure zaharrak zaintzen ari direla esan dugu. Egoera horretara nola iritsi garen jakiteko hiru arrazoi bederen eman ditzakegu: gero eta gizarte zaharragoa

gara; orain arteko zaintzailea, bertako emakumea, etxetik kanpo ari da lanean; eta zerbitzu publiko ezari aurre egiteko, familiek irtenbide pribatuak aurkitu dituzte. Carrizoren ustez joko zitala da: “Langile klaseko familiak adinekoa zaintzeko bi aukera ditu, edo senide bat etxean geratzen da, edo kanpoko kontratatzen du. Kontratatze baliabide ekonomiko askorik ere ez dauka, baina batzuetan beste erremediorik ere ez. Etorkinari lan baldintza kaxkarrak eskaintzen dizkion arren, emakumeak onartu besterik ez du, lan horren behar gorria baitauka. Geriatrikoak hilean 3.000 euro balio dezake eta diru horrekin hiru-lau hilabeterako kontrata dezakezu langilea. Langile klaseko familiak daukan irtenbidea norbait zapaltzea da, eta ez edozein, emakume txiroa eta atzeritarra”.

Krisiak ateak jo duenetik kontuak beste bide bat hartu du. Balio gutxien izan duten lanak hartzen hasi dira berriro bertako langileak: etxe eta atari garbitzera eta zaintza lane-

ez nintzela itzuliko. Hiru hilabete eta erdi egin nituen han. Hura utzi eta Silviak hartu ninduen etxean.

Ezin eta min asko ditu Bermúdezek, baina antzeman diogu ez duela horiez hitz egin nahi. Eta hala esan digu: "Etorri nintzen urte hartan dena gaizki atera zitzaidan eta gaur gauza onak kontatu nahiko nituzke". Nola esan ezetz?

"Zumaiako gizarte zerbitzuetara jo nuen eta oso ondo tratatu ninduten. Diru-laguntza jasotzeko aukera neukan, baina garbi esan nien ez nuela laguntzarik nahi, lana baizik"

Dokumentazioaren lapurreta salatuta, Silvia ezagututa... ateak irekitzen hasi zirela sentitu zenuela esan duzu.

Silviaren elkartearen [Malen Etxea], egoera antzekoan geunden emakumeek elkarri kontatzen genizkion gertatutakoak. Haiek esaten zidaten ez etsitzeko, lan bila, ate joka segitzeko. Orduz geroztik jende askok eskaini zidan bizilekua aldi baterako, Zumaiako gizarte zerbitzuetara jo nuen eta oso ondo tratatu ninduten. Diru-laguntza jasotzeko aukera neukan, baina garbi esan nien ez nuela laguntzarik nahi, lana baizik.

Aurkitu al zenuen lan egonkorrik?

Zazpi hilabete egin nituen Azpeitiko familia batean zaharra zaintzen, bertan bizi nintzela. Oso ondo egon nintzen, lan baldintza egokietan, tratua ona... Zaintzen nuen emakumea hil zenean hilabete hura ordaindu egin

zidaten eta esan zidaten hurrengo lana aurkitu bitartean etxean egon nintekeela.

Eta gero?

Atari berean aurkitu nuen lana, beste zahar bat zaintzen. Hor ere oso ondo nago. Astea etxe horretan pasatzen dut eta asteburuetan Zumaian zaintzaile lanak eta garbiketak egiten ditut. Ez dut ezer utziko badakidalako zer gurutze daukadan han.

Zer moduz zabilta ekonomikoki?

Zorrak kitatzen ari naiz, baina hiru seme-alaba beraien aitarekin daude. Ni dibortziazten ari naiz eta era berean hiru haurren zaintza eskuratu nahian nabil. Umeak utzi egin ditudala egotzi dit senar ohiak, baina nik hemendik bost seme-alabak mantentzen jarraitzen dut. Nire ametsa hori da, egoitza baimena lortzea, nire haurrak ikustera joateko. Orain joanez gero ezingo nintzateke itzuli.

Zer moduz moldatu zara hemengo jendearekin?

Zuen kultura hobeto ezagutzen ari naiz eta diferenteak zarete, baina bakoitzak berea dauka. Hori da zuetaz esango dudana: bizitzan denetarik dagoela. Daukazuen izaera daukazue, gogorrek zarete, baina jende oso ona ere badago. Bada zerbait zuengandik gustatzen zaidana, etxean gizonarekiko daukazuen nagusitasuna. Diferenteak zarete gizonak eta emakumeak, baina eskubide berak dituzue.

Krisia tarteko, bertakoak ez al dira itzuli zuek egiten dituzuen lanetara?

Bai, garbiketara, zaintzara...

Eta krisia hor dela, integrazioa zer moduzkoa da?

Hor ez dago integrazioerik, aldapa gora jarri da kontua.

tara itzuli dira. Pentsa liteke hemengo emakumeek atzerriarren lan baldintza berak izango dituztela, baina inkestek eta ikerketek ez diote horrelakorik. Etorkin asko lana egiten duten etxe berean bizi dira. Bertako langileak, agian, hamabi ordu egiten ditu lan egunero, baina

bere etxera doa lotara. Litekeena da biek soldata bera irabaztea, aldea dago ordea, lan orduetan. Atzerriarrek astean zazpi egunez egiten du lan eta hemengoak astelehenetik ostiralera. Hainbat familiak adinekoak zaintzeko aurkitu duen formula ondokoa da: ber-



1. FINALERDIA

martxoak 13, igandea, 17:30ean

Sarrerak erosteko egun berean takilan

ZIGOITIko Kultur Zentroan

www.arabakotxapelketa.org



Babesle Nagusiak



Silvia Carrizo, Malen Etxearen sortzaileetakoa “Badira batzuk fede onez datozenak”

2001ean Hego Ameriketatik heldutako hainbat emakume biltzen hasi zen Zumaian. 2003an Malen Etxea sortu zuten. Emakume atzeritarren bilgune garrantzitsua da, hausnarketa feministarako eta elkar laguntzeko tokia. Lanera etorri diren emakumeen eskubideak aldarrikatzen dituzte eta lan baldintza ez-onargarriak salatu. Mota askotako ekintzak dituzte, hala nola, lan poltsa, erregularizazio kontuetarako laguntza, emakumeek jabekuntza prozesua garatzeko hitzaldiak eta bertako emakumeekiko harremana lantzeko ekimenak.

Silvia Carrizo kazetariak (1965, Caleta Olivia, Argentina) oso gertutik ezagutu ditu lanera datozen emakume horietako asko. Lana aurkitzen laguntzeaz gain non lo egin ez zutenak etxean hartu ditu. Hemengoak fede onekoak eta ez hain onekoak omen gara: “Badira batzuk fede onez datozenak [bere gozoki dendan

gaude], agian gutxiengoa, eta etxeko lanetarako kontratazioak nola egin galdetzen digute. Beste batzuek balizko langileen izenak eskatzen dizkigute, elkarrizketatu eta ez dituzte kontratatzen. Zenbat eskatzen duten jakin nahi dute”.

ARGIA



tako langileren bati edo senideren bati ordaintzen zaio astean zehar zaharra zaintzeko eta asteburuetan senideak txandakatuz moldatzen dira. Langile horri oporrak ordaintzen zaizkio, atzerritarrari ez bezala. Adinekoaren zaintzailea etxekoa denean bi diru iturri ere izaten ditu: senideek emandako soldata kaxkarra (Gizarte Segurantzaren izena eman gabe) eta Eusko Jaurlaritzak etxekoa zaintzeagatik ematen dizkion 400 euroak. Horrela itxuratzten du hileko jornala.

Berez ere lan baldintza kaxkarrak dituen lanbidean zergatik halako diferentziak bertako eta kanpokoen artean? Carrizok aho bizarrik gabe hitz egin du: “Klase eta etnia kontua da... garbiago nahi baduzu, arrazismoa. ‘Zu eta ni berdinak izan gaitezke, baina zu diferentea zara’. Gainera, konplexurik gabe egiten duzue, zuen parekoari horrelakorik egitea ez zaizue otutzen”.

Tratu txarrak, isilpean

Malen Etxeak, 2006 eta 2007 urteetan, etxeko langileen lan baldintzak aztertzeko 36 atzerritarri inkesta egin zien. 34 hegoamerikarrak ziren eta bi Europa Ekialdekoak. Horietatik 30ek lantokia bizitoki zuten. Inork ez zeukan Gizarte Segurantzarik. Inkesta horiei esker lortu dira, besteak beste, hurrengo orrialdean dauden datuak. Ikuspegi kuantitatibotik kualitatibora jauzi egin nahian, talde horretako hamabost emakumerekin hiru bilera egin zituzten. Haiek kontatutakoen laburpena egiten saiatuko gara ondoren.

Bertakoekiko harremana inoiz ez dela horizontala azpimarratzen dute langileek: nagusia/langilea, sendagilea/gaixoa eta alokatzailea/maizterra, esate baterako. Aisialdi-

rako astirik ez dutenez etxe inguruan dabilta eta etxekoekin baino ez dituzte harremanak; beraien nagusiekin, zaintzen dituzten haur eta zaharrekin, eta etxeko lanetan ari diren beste langileekin. Etorkinei ez zaie galdetzen jatorrizko herrialdean zein lan egiten zuten, ezta zer egiten dakiten ere. Alabaina, ikasketarik gabekoak gutxiengoa dira. Sarri umiliatuak sentitzen dira. Mahaiaren inguruan eseri ziren hamabost emakumeek honelako adibideak eman zituzten: lurra belaunikatuta garbitu behar izatea; arropa nola zintzilikatu, ohea nola egin edo letxua nola garbitu behin eta berriz azaltzea; zenbat jaten duten kontrolatzea eta azpimarratzea zenbat gastatzen duten beragatik janaritan. Emakume batek, kafea tarteko, nagusiak egindako oihiak kontatu zituen. Nonbait, langileak kafea egin eta edan zuen, eta nagusiak esan zion kafea garestia dela, berak agindu gabe nola egin zuen horrelakorik, eta txikoria erabili behar zuela.

Sexu jazarpenak ere jasan dituzte, nahiz eta ez dituzten hain erraz kontatzen. Malen Etxeak antolatutako mahai-inguru pribatu haietan, geroko batean, agertu ziren horrelako kasuak. Langileek ezkutuan gordetzen dituzte gertaera horiek, lotsagatik eta lana galtzeko beldurragatik. Behin baino gehiagotan, lana uzterakoan kontatu dute gertatu zaiena, lan hori hartzera zihoanari horrelakorik opa ez zielako. Etorkinek oso barneratuta duten esaldiak sexu jazarpenak ezkututzen laguntzen du: “Hortara etorri gara, aurpegiratzten diguten guztia jasatera”. Ohikoa da esate egunerokoan ondo tratatzen dituztela, baina galdetzen hasiz gero, beti daukate diskriminazio adibideren bat.

Emakume etorkinak etxeko lanetan

**EAEEn biztanleriaren %6 atzerritarra da. Espainiako Estatuan %12.
EAEko etorkinen %50,6 gizonak dira eta %49,9 emakumeak.
Emakume atzerritarren %89 etxeko lanetan aritzen da.**

Lan baimena duten etxeko langileak

%53k noizbait sexu jazarpena jasan du.

%79k hamar ordu baino gehiago egiten du lan eta %21ak zortzi eta hamar ordu artean.

780 euro da batez besteko soldata. Askotan, janaria eta lo tokia ematen zaio, soldatetik kenduta.

%41ari ez zaizkio oporrak ordaintzen edo ez du oporrik.

%64k ez du atsedenik lanaldien artean.

Setik 1ek ez du egun batez ere atseden hartzen.

Iturria: *Manos que mueven el mundo* txostena. Silvia Carrizo

Sexu jazarpenak bezala, isilean dauzkate jasandako irainak eta tratatu txar fisikoak. Emakume batek kontatu zuen zaintzen zuen adinekoak zaplaztekoa eman ziola. Ospitalean zeuden eta bertako langile bat aurrean zela zaintzaileari belarrondokoa eman zion zaharrak. Zaintzaileak zaharraren seme-alabei ez zien ezer esan, baina uste du erizainak zerbait esan ziela: “Gertatutakoa ikusi zuen erizainak zerbait esango zien, zeren zaharrak ez dit eskurik altxatu berriro”. Ugazabek botere handia dute, haien esku baitago atzerritarren eta familien biziraupena eta etorkin horiek erregularizatuta egotea edo ez.

Malen Etxeak, hainbat ikerketa kuantitatibo eta kualitatibo egin eta gero, aurrera begira lantzeko hiru gai nabarmendu ditu: etorkinek etxera bidalitako dirua zertarako erabiltzen duten; itzulera nola antolatzen duten; eta beraien haur eta adinekoak han utzita besteenak zaintzeak emozionalki nola eragiten dien.

Sinpatikoak... “bachata” dantzatzeko bitartean

Esan dugu bertako jendearekin ez dutela aparteko harremanik. Lana egiten duten etxe-koekin dute erlazioa eta aisian haien herrialde-koekin edo beste atzerritarrekin elkartzeko dira. Ikuspegik (EAEko Immigrazioaren Euskal Behatokia) ematen dituen datuak gogoan egin digu hausnarketa Carrizok: “Tolerantzia indizeak aldatzen ari dira eta kezkatzekoa da. Gertaera isolatua da, adibidez, Bilboko metroan ostikoka ibili zuten neska paraguaiarrarena, baina horrelakoak ezin dira ahaztu. Euskal gizarteak beti irudikatu izan du immigrazioa hirukoiztuta. Integrazioa zer da, tabernan sartu eta *bachata* dantzatzea eta *consuasa* jatea? Hori ez da integrazioa, hori aisialdia da. Sinpatikoak gara zuen lan esparruan, osasun zentroetan eta babes ofizialeko etxebizitzetan zozketan sartzen ez garen bitartean. Batzuen eta besteen eskubideez hitz egiten hasten garenean ez dago integrazioa”. ■

 M8 MARIJIRA (manifesta) Ordua: 18:30. Lekua: Plaza Berri. Hernani Antolatzailea: Berdintasun Kontseilua eta Txoko Feminista.	MARTXOAK  HERNANI	EMAKUMEEN EGUNA  M17 HITZALDIA: “Euskal Herriko mugimendu feminista. Kronika bat” Hizlariak: Edurne Epelde eta Miren Aranguren (Emagin) Hizkuntza: euskara Ordua: 20:00. Lekua: Biteri Kultur Etxea M22 HITZALDIA: “Transfeminismoa” Hizlaria: Itziar Ziga Hizkuntza: gaztelania Ordua: 19:00. Lekua: Biteri Kultur Etxea
--	--	--



es
berdintasun kontseilua

Tariq Ali

«Mundu arabiarra hau egiteko zain zegoen aspalditik»

Matxinada gorrian daude herrialde arabiarrek Tariq Ali Iruñera etorri den egunean. Tunisian eta Egipton gobernuak erori dira; Libia oraindik ez da informatiboetako lehen albiste bihurtu, baina giroa bero dago. Iruñeko Golem zineman Zabaldik antolatu duen hitzaldiaren aurretik hitz egin dugu Alirekin, La Hormiga Atómica liburu dendan.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkiak: Dani Blanco

Egiptoko azken asteotako gertakariak garai berri baten hasieran jartzen gaituzte?

Ez nuke horrelako adierazpenik egingo derri-gorrez, baina Ekialde Hurbilean inflexio-puntua markatzen du, lehenbiziko aldiz 1960ko amaierako urteetatik eta 1970eko hamarkadaren hasieratik. 1967an Siriak eta Egiptok Israelen kontra jasan zuten porrotak –Mendebaldearen laguntzarekin–, puskatu egin zuen nazionalismo arabiarren bizkar hezurra. Hori egiteko diseinatuta zegoen, gainera. Egiptoarrak porrot garai horretan murgilduta egon dira geroztik. Interesgarria da honako kontrastea egitea: 1967ko porrotaren ondoren, herriaren liderrak, Gamal Abdel Nasser-ek dimititu egin zuen esanez “onartzen dut porrotaren ardura, ez naiz zuen presidentea izango gehiago”. Milioika lagun atera ziren kalera “ez joan!” esanez; “nahikoa txarra da gerra galdu izana, ezin dugu zu ere galtzeko arriskua hartu”. Beraz, arrastaka ekarri zuten bueltan agintera. Zenbait urte beranduago, bihotza puskatuta hil zenean, ez zeukan batere dirurik bankuko kontu-korrontean; bere soldata bakarrik jasotzen zuen. Hosni Mubarak-ekin kontrasteak ezin du handiagoa izan: milioika lagun zuk alde egin dezazun eskatzen, zuk uko egiten diozulako kargua uzteari.

Esango nuke hurrengo hamarkada erabakigarria izango dela mundu arabiarrek hartuko duen itxura ikusteko, baina edonola, altxamendu hauek gauza asko aldatu dituzte: pertzepzioak, kontzientzia politikoaren maila... eta hori biziki garrantzitsua da. Gainera, Mendebaldeari zera esan zaio: “Zuek


diktadore hauek babestu dituzue. Gu gara askatasunaren alde borrokan ari garenak”.


Hedabide nagusiekin kritikoa zara; errebolta hauetan Al Jazeera bezalako kateek nolako lana egin dute?

Al Jazeera garrantzitsua izan da, mundu arabiarrean jendeak sinesten duen telebista bakarra delako. Ez dute sinesten beraie herrialdeetako telebistek diotena, beraz, Al Jazeera Tunisian gertatzen ari zena kontatzen hasi zenean Egipto guztia begira zegoen. Alde horretatik, izugarri erabilgarria izan zen. Egiptoko lagun asko dauzkat eta tunisiarrei begiratzen zieten herrialde arabiarren artean jende ahulena balira bezala. “Beraiek egin dezakete? Orduan, guk ere bai” esan zuten eta

Nortasun agiria


Tariq Ali 1943an jaio zen Lahoren –gaur egun Pakistan, artean Britainia Handiaren menpeko India–. Gaztetan Erresuma Batura jo zuen, Oxfordeko Unibertsitatean ikastera eta geroztik hainbat borrokatan parte hartu du. Vietnamgo gerraren aurkako mugimenduan zaildu zen eta ezaguna da afera horretaz Henry Kissingerrekin izan zuen eztabaida. Munduari ezkerretik begiratzen dio, publikatu dituen liburuei erreparatzea besterik ez dago. Azkenekoan (*Obama sindromea*, 2010) AEBetako presidente berriaren politikak gupidarik gabe aztertzen ditu.






Sozialismoa alternatiba?

"Baietz uste dut: sozialismoa eta demokrazia erradikala. Parte-hartze erradikala maila ugarian, lokaletik hasi eta nazionaleraino; eta hor herritarrak biltzen saiatzea oso garrantzitsua da. Bestela, zein da geratzen zaigun aukera? Bankariekin kontrolatutako politikariak dauzkagu, politikariak kontrolatutako bankariak, jendearen interesen erabat aurka dagoen sinbiosia da".



Sare sozialak matxinadan

"Exagerazioa iruditzen zait gai horri eman zaion garrantzia. Mendebaldeak ondo sentitzeko nabarmentzen duen zerbait da: 'Begira, guk asmatutako gauzak erabiltzen ari dira'".



orain jendea esaten ari da "egiptoarrek egin dute? Guk ere egin dezakegu". Asko lagundu du Al Jazeera horretan, horregatik moztu zioten seinalea Egipton; horregatik debekatu zuten eta atxilotu zuten herrialdeko korrespontsal-burua. Baina beranduegi zen.

Zer gertatzen zaigu hemen, orduan? Alegia: hedabide independenteak eskura dauzkagu Interneten, gertatzen ari dena jakiteko problemarik ez, baina egoerak zuzenean kolpatzen gaituen arte ez dago mugimendurik...

Telebistako irudiak oso erabilgarriak dira, baina huts-hutsean ezin dute ezer egin. Baldintzak behar dira, orduan bihurtzen dira baliagarri Al Jazeeraarenak bezalako irudiak. Badakizu, mundu arabiarra hau egiteko zain zegoen duela zenbait urtetik, jendea haserre zegoen, nazkatuta. European beste arazo bat dago, mundu arabiarrekin konparatzen baduzu. European badaukazu hainbat alderdi politiko eta horiek bideratzen dituzte hainbat esperientzia; mundu arabiarrean alderdiak lege kanpo zeuden eta horrek bihurtu du masa-mugimendua izugarri aberats, alderdi bakar batek ezin izan dituelako bere asmoak konfiskatu. Hemen eskuina daukazu, PSOE daukazu, sozialdemokrazia berria daukazu... Beraz, erabateko haustura gertatzen den arte kapitalismoaren forma degeneratu honekin kolaboratzen duten alderdiekin, ez dut ikusten nola egin daitekeen aurrera European.

Ez dago esperantzarik.

Momentu honetan ezetz dirudi. Baina inoiz ez da jakiten, ez pentsatu orain ezer gertatzen ez delako lau urte barru ezer gertatuko ez denik. Zerbait piztu daiteke, jendea haserre dago European, baina baita laguntzarik gabe ere. Horrela sentitu dira arabiarrek 25 urtez eta azkenean haserre lehertu da. Kontzientzia politikoa ez da inoiz lineala, gora eta behera ibiltzen da eta egun batean zerua ukitzen du: orduan, altxamenduak eta iraultzak gertatzen dira.

Historiaren garrantzia ere azpimarratu izan duzu gatazkak ulertzeko. Nola manipulatzeko gaituzten ulertzeko faktore garrantzitsuenak ote da historia-heziketaren gabezia?

Faktoreetako bat da, ez bakararra. Kapitalismo neoliberala sortzen ari den mundua, apatia politikoa instituzionalizatzeko diseinatuta dago: kultura, politika, ekonomia... Ekonomian, krisia iritsi arte, baita ondoren ere, zera esan digute: "Har ezazue dirua, gasta ezazue, erosi, erosi, erosi". Kontsumismoa eta horrelako balioak, indibidualismoa, "zerorrek egin dezakezu dena, ez larritu". Eta ez du inoiz horrela funtzionatzen, baina jendea dinamika

horretan harrapatuta egon da 2008ko krisia iritsi den arte. Orain herritarrak berriz hasi dira pentsatzen. Adibidez, Britainia Handian duela gutxi ikasleek egindako okupazioetan, haietako batzuekin hitz egitera joan nintzen. Egiten zizkidaten galderak honelakoak ziren: “nola zen 1968an?”, “zein ziren zuen eskakizunak?”; eta nik antzekotasunak eta desberdintasunak azaldu nizkien. Beraz, jendea mugitzen hasten denean, segituan sortzen da historiaren beharra; horregatik agintariek, intentzio osoarekin batzuetan eta nahi gabe bestetan, oso onarpen gutxiko diziplina bihurtu dute historia. Gainera, moduluka erakusten da, populua geldiarazteko, ez dezazun kokatu argazki osoa bere testuinguruan.

Inperioa eta erresistentzia liburuan AEBetako herritarrak animatzen dituzu beren herrialdearen praktika inperialisten aurka antola daitezzen. Inperioa borrokatzeko modurik eraginkorrena barruko mugimendu antolatua al da?

Oso garrantzitsua dela uste dut, AEBen inperioa, nire aburuz, ekonomikoki ahula delako eta militarki oso indartsua; are, militarki gaindeterminatuta dago. Beraz, jarrai dezake horrelako ekintzekin, bere ahulezia ekonomikoa konpontzeko. Herrialde bat zeureganatzen duzu, inork ez dizu kontra egiten, ez dago beste estatutik munduan aurre egiteko prest: Europar Batasuna txistea da, AEBen apendize hutsa; Txinak ez dauka kanpo-politikarik, oso ahula da atzerrian duten presentzia; Errusia bere eragin-esparruan mantentzen da; ez dago estatu-mailako inolako oposizioirik, azkenaldian Hego Amerikan sortu dena salbu, badakizu, Chavez, Morales... Baina ez maila globalean. Beraz, inperioa ezin da behera bota gerraren bidez, iraganean beste inperioekin gertatu izan den moduan. Ahuldu daiteke, okupatzen dituen herrialdeetan sortzen diren matxinedekin, baina finean, nik uste, etorri beharko litzatekeela AEBen barruan zerbait. Beharba da oker nago, baina hori uste dut.

Halere, 1960ko hamarkadako Black Panthers edo Weatherman bezalako mugimenduak ere kritikatu izan dituzu, biolentzia erabiltze hutsarekin estatua garaitu zezaketela uste izan zutelako. Black Panthers izan zen zerbait apur bat diferentea, benetan, bere komunitateari erakutsi ziolako autodefentsarako eskubidea zuela, mota guztietako eguneroko indarkeriaren aurrean; eta estatua hainbeste larritu zen, Black Panthers suntsitzen bukatu zuela,

“Kontzientzia politikoa ez da inoiz lineala, gora eta behera ibiltzen da eta egun batean zerua ukitzen du: orduan, altxamenduak eta iraultzak gertatzen dira”

“Herrialde batek banatu nahi badu existitzen den beste batetik, baina sistema sozial eta ekonomikoak berdin-berdina izaten jarraituko badu, orduan non dago aldea?”

modu anker eta basatian. Weatherman aldiz ikasle-erakundea zen. Pentsatu zuten AEBetako armadaren instalazioak lehertzea zela Vietnamgo herriari laguntzeko zeukatzen modu bakarra. Jabetza eta instalazio militarrek eraso zituzten, ez jendea, baina estrategia okerra izan zen. Masa-mugimendu handia geneukan AEBetan gerraren kontra eta Weathermanek, edo beraiekin lotutako jendeak behintzat, banandu egin zuen mugimendu hori.

Lehen aipatutako liburu berean adierazi zenuen inperioak nahiago duela nazio-estatuen balkanizazioa, horrela errazago kontrolatzen ahal dituelako. Gaur [otsailak 16] *Berrian* egin dizuten elkarrizketan esan duzu nahiago duzula Euskal Herria eta Herrialde Katalanak Espainiatik ez banatzea. Azaldu dezakezu gehiago ikuspuntu hori, mesedez?

Lotuta dago aurrea aipatu duzunarekin. Nik uste bizi garen garaia ez dela XX. mendea bezalakoa. Pasa den mendean, bestelako alternatiba sozial eta politikoak existitzen zirenez maila globalean –Txina kapitalista bihurtu baino lehen eta Soviet Batasunaren kolapsoaren aurretik–, sistema horiek ahulak izan arren, bazegoen kapitalismoarentzat oztopo bat. Orain berriz, erabat kapitalista den munduan bizi gara eta herrialde batek banatu nahi badu existitzen den beste batetik, baina sistema sozial eta ekonomikoak berdin-berdina izaten jarraituko badu, orduan non dago aldea?


Irakeko gerraren alde agertu ziren kurduei galdetu nien: “Pozik egongo zarete AEBen eta Israelen Irakeko protektoratua izanda?”. “Nahiago dugu hori, Iraken parte izatea baino” erantzun zidaten. Erokeria da! Zergatik? Espazio hori erabili nahi baduzu zerbait diferentea egiteko, eta estatuak geldiarazten bazaitu, orduan alternatiba erabat diferentea da.



CAMPOS

1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERI ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com



OFF THE RECORD

Egun finlandiar bat Iruñean

Erozekoa behar du izan egiazki. Hiri batera iristen zara eta ezin konta ahala jendeak hitz egin nahi du zurekin, horietatik ez gutxi, kazetariak. Bihar-etzi euren agerkariak suzko lili bihurtu nahi dituzte, gasolina eman behar diezu, debalde. Arratsalde osoa pasa du elkarrizketak eskaintzen, nekatuta dago, baina arrangurarik ez azkenekoa iritsi denean. Gero, bukatzean, hitzaldia eman behar duen aretora autoz joan nahi ote duen galdetu diote. Ezetz, nahiago duela oinez. Horri esker hiriaren historiaz zerbait ikasteko parada izango du. Golemeko txalo zaparradarekin amaituko da Tariq Aliren Iruñeko egun finlandiarra. Egun finlandiar luze-luzea.

1970eko hamarkadan egunkari ezkertiarretan editore aritu nintzen eta euskaldunen borrokaren oso aldekoak ginen, oso-oso aldekoak; eta oraindik maila politikoan alde nago, errepre-sioa onartezina baita. Espainiako Estatua eta Europako instituzio juridikoak izaten ari diren portaera onartezina da, baina ez nago konben-tzitua zatiketak ezer positiboa ekarriko duenik, Herrialde Katalanak edo Euskal Herria, fun-tsean, berdina izango direlako. Eta ikusiko duzu nola dagoeneko existitzen den enbrioi bat, oligarkia edo elite lokala, modu berean portatuko den eta Europar Batasunean jarrai-tuko duen. Gaur egun daukagun problemeta-ko bat Europar Batasuna da: ez da demokrati-koa, bankariek egindako batasuna da, ustela da, ez dio jendeari esperantzarik eskaintzen... Zergatik izan horren parte? Baina estatu berriekin batera alternatiba sozialak eraikitzen badira, oso diferentea da kontua.

Obamari buruz idatzi duzu azken liburua eta, besteak beste, administrazio kontserbadorea osatu duela diozu.

Tira, elite europarrak ere kontserbadoreak dira eta Obamarengan agindutako lurrera

eramango zituen liderra ikusi zuten europar horiek oso ergel sentitu behar dute momen-tu honetan, ikusten duten guztia aurrekoa-ren jarraipena besterik ez baita. Beraz, Espainian Zapatero ikusten duzunean Obama imitatu nahian, edo Italian Veltroni, biak esaten "Obama bezalakoak gara"... Ba, bai, Obama bezalakoak zarete, baina ez egon horretaz oso harro. Adibidez, Europa-ko herritar gehienak Afganistanen egotea-ren kontra daude, baita Espainian, Aleman-ian eta Britainia Handian ere. Politikariek ez diete kasurik egiten. Eta herrialde euro-par horiek Afganistanen egoteko arrazoi bakarra da AEBek hala nahi dutela, ez dago beste ziorik. Gainera, Obamaren politikak Afganistanen eta Pakistanen Bushenak baino okerragoak izaten ari dira: jende gehiago hil du Pakistanen, barbarako. Eta AEBen barruan ere, Wall Streeten morroia da, beraz, zein da aldea? Azalaren kolorea. Baina hori ez da nahikoa. ■

argia.com 36ko Gerraz, Trantsizioaz, Wikileaks fenomenoaz... ere aritu ginen Tariq Alirekin. Webgunean irakur dezakezue elkarrizketa osoa.

IBERNALO

landetxea - jatetxea

Gozatu naturaz: hipika, arrantza, golfa, eskalada, amildegia...






01110 Kanpezu (Araba) - ☎ 945 102 271 / 647 911 484 - www.ibernalorural.com

Oinarritzko jana garesti

Oinarritzko elikagai ugariak glutena du osagaietan, eta produktu horiek glutenik gabe erostea garestia goa da askoz –besteak beste BEZ altuagoa ezartzen zaielako–. Ondorioa? Glutenik gabeko dieta jarraitu behar duten zeliakoen poltsikoak xahututa daudela, inongo diru-laguntzarik jaso gabe, administrazioak ez baitu dieta berezia tratamendutzat onartzen.

MIKEL GARCIA

Argazkia: Dani Blanco

MARIA GAILETA KILOAK 1,91 euro balio du, baina glutenik gabe 11,40 euro; urdaiazpiko egosi kiloak 8,19 euro, glutenik gabe 10,04; ogi kiloak 2,51, glutenik gabe 12,56; makarroi kiloak 1,44, glutenik gabe 7,36... Luzea da zerrenda, eta handia prezioen arteko aldea. Espainiako zeliakoen federazioak kaleratu dituen 2011ko elikagai-zerrendaren emaitzak dira, supermerkatu handietako batez beste-koak erkatuz.

Glutenari –zehazki glutenaren gliadina proteinei– intolerantzia diote zeliakoek eta berau duten produktuak janez gero, digestioa oztopatu eta ondorio kaltegarriak sortzeko arriskua dute. Glutena dute gariak, garagarak, zekaleak, tritikaleak, kamutak, espeltak eta oloak, eta beraz zeliakoek debekatuta dituzte ogia, irina, pasta, zopa, gailetak, txokolatea edo garagardoa bezalako produktuak. Horrez gain, elikagai askoren ekoizpen industrialean glutena gehitzen da loditzeko edo gelifikagarri, eta kontserba-

latek, pateak, gozoek, kafeak edota txerri-
kik glutena dute maiz.

Ondorioz, horiek guztiak glutenik gabe prestatuak erosi behar dituzte, garesti ordainduta. Aurtun, oinarritzko elikagaiei %6ko BEZa ezarri zaie Espainiako Estatuan, baina produktu horiek berak, glutenik gabe direnean, %9ko BEZa dute, elikagai berezitzat hartzen baitira. “Ez zaigu bidezkoa iruditzen, eta helegitea aurkeztu izan dugu, baina legeak hala dioela esan digute. Bada, alda dezatela! Ez dute halakorik planteatu ere egiten, eta hiru puntuko aldea dago!”, kexu da Mireia Apraiz, Euskadiko Zeliakoen Elkarteko zuzendaria. Arazoa da oinarritzko elikagaiei eragiten diela garestitzeak, eta okindegi produktuetan, pasta elikagaietan daude prezio alde handienak.

Zeliakoen elkarrekin eskatu izan dute glutenik gabeko elikagaiak dietoterapiaren baitan sartzea, dieta bera zeliakoen tratamendua delako, gaur egun ez dago beste tratamendu-

Ogi kiloak 2,51 euro balio du batez beste; glutenik gabeko ogi kiloak aldiz, 12,56 euro. Oinarritzko elikagaiei %6ko BEZa ezarri zaie Espainiako Estatuan, baina produktu horiek berak glutenik gabe direnean, %9ko BEZa dute.



Prezio desberdintasuna elikagaietan

	€/KG.	€/KG. GLUTENIK GABE	DIFERENTZIA
Corn Flakes zerealak	3,13	9,30	%297,31
Kroketak	2,92	12,79	%438,39
Enpanadillak	4,07	18,21	%447,19
Fideoak	1,38	7,37	%532,93
Txerri xerra adobatua	6,20	7,59	%122,46
Maria gailetak	1,91	11,40	%596,82
Irina	0,69	4,69	%677,50
Magdalenak	2,32	14,79	%636,41
Maionesa	2,64	3,67	%138,77
Mermelada	3,04	5,60	%184,06
Ogia	2,51	12,56	%501,15
Espagetiak	1,51	7,47	%493,21
Frankfurt saltxitxak	3,09	8,46	%273,79
Lasagna	4,76	15,67	%329,44

* Espainiako Zeliako Elkarten Federazioaren zerrendatik ateratako adibideak.

rik gaitzari aurre egiteko eta beharrezko produktuak dituzte, “baina esan digute nahi izanez gero zeliakoek badituztela produktu alternatiboak, arroz-opilak jan ditzaketela adibidez ogia jan beharrean... Ez dira konturatzen zeliakoen normalizazioa bilatzen dugula eta haurra ikaskideekin txango bat egitera doanean ez dela gauza bera bokadiloa eramatea edo arroz-opilekin egindako otartekoa, umeek ez dute desberdin sentitu nahi, integratu egin nahi dute”, dio Apraizek. Hain zuzen, Frantziako Estatuan, Erresuma Batuan edo Italian, besteak beste, zeliakoek dirulaguntzak jasotzen dituzte; produktu asko errezeta bidez eros ditzakete, beherapenekin.

Apraizek azaldu du Espainiako Estatuko hainbat erkidegotan dirua ematen zaiela zeliako elkarteei, beraiek erabaki dezaten dirua zeinen artean eta nola banatu, baina ez zaio ego-kia iruditzen, hori administrazioaren lana

Hainbat herrialdetan, zeliakoek errezeta bidez eros ditzakete produktuak, beherapenekin.
Erosketa tiketak erabiliz Ogasunean desgrabatu ahal izatea eskatu du Mireia Apraiz Euskadiko Zeliakoen Elkarteko zuzendariak

delako: “Ez dugu horrelako laguntzarik nahi, behar duguna da produktuei eragingo dieten neurriak hartzea, dauden desberdintasun ekonomikoak txikitzeko. Esan bezala, elikagai horiek zeliakoaren tratamendua baitakoak dira, ez dira apertazko produktuak: beraz, glutenaren duten oinarritzko produktuen tratua bera eskatzen dugu, %6ko BEZa, eta erosketa tiketak erabiliz Ogasunean desgrabatu ahal izatea, kontsumoaren arabera –lehen egiten zen moduan–”.

Aizpea Gonzalezek ere beharrezkoak ikusten ditu laguntzak, eguneroko gastua handia delako: “Medikuaren idatzia baldin badaukazu esanez zeliakoa zarela, laguntzaren bat eman beharko lizukete, edo bestela produktuak gainerakoen prezio berean jarri”. Zestoarra da Gonzalez, eta 7 urteko alaba zeliakoa du, Saioa. Urte eta erdi-rekin diagnostikatu zioten, biberoia zerealekin ematen ziotenean kalte egiten ziola ikusi ostean. Euskadiko Zeliakoen Elkartera jo zuten orduan, kide berrientzat egiten dituzten informazio bileretako batera, eta liburuxka eman zieten Saioak jan zitzakeen produktu eta markekin. “Etxean jan ohi genuena zerrendarekin konparatu eta glutenaren zuten elikagaiak glutenik gabeko zerrendako marketara egokitu genituen. Gosaltzeko gailetak adibidez Saioak bereak dauzka eta guk gureak, baina gehiena glutenik gabe jaten



Gari-buru ezabatuaren etiketa daramaten produktuek ez dute nahikoa berme zeliakoen elkarteentzat, ez dagoelako kontrolrik. Glutenik ez dutela frogatu duten markekin, zerrenda propioa ateratzen dute elkarteek.

dugu familiako denok: babei glutenik gabeko txorizoa botatzen diet eta kito”. Salneurria da arazoa: “Dezente garestiagoak dira glutenik gabeko produktuak eta gastua bikoiztu egiten zaigu, eguneroko elikagaietan gainera. Irina adibidez, egunero erabiltzen duzun zerbait da, bada, kilo bateko poltsak 3,5 euro balio du eta ogi arraspatua adibidez oso garestia da. Guk orain murriztu egin dugu kontsumoa eta gutxiago erabiltzen ditugu irina eta hala-koak”, adierazi du Aizpea Gonzalezek.

Gainerakoan, glutenik gabeko jakiak aurkitzeko ez du buruhauste handirik; supermerkatuan ez bada, Zestoako belar-dendan topatzen ditu behar dituenak. Etiketarekin, ordea, kontu izan behar da.

Etiketa ez da fidagarria

Glutenik gabeko produktua dela adierazteko, gari-buru ezabatua-ren sinboloa orokortua dago etiketetan. Ordea, sinbolo hori kontrolik gabe erabili dela eta beraz kontuan hartu beharreko irizpidea Federazioak urtero kaleratzen duen zerrenda dela ohartarazi du Mireia Apraizek, glutenik gabe ziurtatuta dituzten markekin. Zerrenda horretako elikagaiek kontrol analitikoak gainditu eta egiteko prozesuari eta osagaiei buruzko datuak ematen dituzte. Aldiz, zuzen-dariarentzat gari-buru ezabatua eramatea soilik ez da berme, administrazioak ez dituelako kontrolatzen aurretik salaketarik ez bada egon: “Frogatu egin behar da benetan glutenik gabea dela, zeren hainbat enpresek sinboloa jartzen diete eta gero Federaziotik informazioa eskatzen diegunean, ez digute bidali nahi. Hori guretzat ez da fidagarria”. Besteak beste, kutsadura nahastua deiturikoa hartu behar da kontuan: nahiz eta osagaien artean glutenik ez izan, prozesu industrialak eraginda gluten arrastoak egon daitezke –glutendun ogia egin

ostean gabekoa egiterakoan, esaterako, arrastoak gera daitezke makinan–.

Herritarren %1ari eragiten dion hesteetako gaitza

Ehun herritarretik bat zeliakoa da. Hots, digestio arazo kaltegarriak ditu. Heste meharrean ditugun biloak lagungarri dira digestioan, baina glutenak (gliadinek) bilo horiek suntsitzen dizkie zeliakoei eta digestio txarraren ondorioz diarrea, goragalea, jateko gogoia galtzea, dermatitisa, sabeleko mina, nekea, desnutrizioa... eman daitezke. Gaixotasun kronikoa da, eta oraingoz, glutenik gabeko dieta da gaitza kontrolpean izateko, osasuntsu mantentzeko eta heste-biloak birsortzeko dagoen tratamendu bakarra. William Kare Dicke pediatria holandarra konturatu zen horretaz, 1950ean, ohartu zenean II. Mundu Gudan gariaren deribatuen gabezia egon zenean gaixoen egoerak hobera egin zuela nabarmen.

Edozein adinetan ager daitezke zeliakia, ume nahiz heldu izan, eta infekzio biriko batek eragin dezake. Frogatua dago faktore genetikoak zerikusia duela, baina ez dago argi nola heredatzen den. Diagnostikatze-

ko, funtsezkoa da hesteetako biopsia egitea, eta behin gaixotasuna egiaztatuta, ezinbestekoa da glutenik gabeko dieta beti mantentzea, nahiz eta sintomak desagertu, gluten arrastoek ondorio kaltegarriak ekar ditzaketelako.

Dieta jarraitzeak esan nahi du Europar Batasunean merkaturatzen diren produktuen %70 saihestea. Dena den, glutenaz ez da nahitaezko proteina gizakiarentzat eta zeliakoek dieta osasuntsu eta orekatu askoa eraman dezakete. Finean, zeliako elkarrekin argi utzi dutenez, beste bat da afera: administrazioaren babesik ezean, tratamendua jarraitzeak uzten dien zulo ekonomikoa. ■

“Gastua bikoiztu egiten zaigu, eguneroko elikagaietan gainera. Irina adibidez, egunero erabiltzen duzun zerbait da, bada, kilo bateko poltsak 3,5 euro balio du. Murriztu egin dugu kontsumoa”

AIZPEA GONZALEZ, ZELIAKOAREN AMA



Bermeo

Liburu azoka martxoaren 4tik 13ra, Lamedan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

TTAKUN (H)ERRENKA

Irlak itsasoan bezala

G

ure iritzia publiko egiten dugun une beretik, jendeak maitatu edo gorrotatu egingo gaituela kontziente behar dugu izan. Hori horrela zergatik gertatzen den ez dakit, baina horrela da. Gizakiaren psikologia gauza oso konplexua da, ulertzen zaila gehienetan, gero eta zailagoa, gero eta konplexuagoa, baina erabat eta betiko aldatzen zaizu bizitza zure gogoz edo gogoaren kontra zure iritzia eta zure aurpegia zabaltzen hasten zarenean komunikabideetan barrena. Baina gure iritziagatik baino, iritzi hori publiko egite hutsagatik izan ohi da, eta pena da hori. Nire irudikapena da neke gehiegi pasa behar dugula gauza guztiei buruz iritzi propio bat izan eta iritzi hori bihotz indartsuz eta argi plazaratzen dugunok. Gaizki ikusia dago kontraren kontra aritzea, kezka bat izatea barrenean, eta artaldeko norbait izateko ezintasun horretan erabakitzen dituzula zure bizitzako beste ezintasun guztiak. Eta okerrera izan ohi da, errazegi epaitzen ditugula besteak, errazegi. Eta gezurretara jotzen dugu, normalean. Adibide txiki bat jarriko dut: jendeak, oro har, uste du bizitza izugarri ongi doakidala han eta hemen nabilelako kolaborazioak idazten eta herri guztiaren aurrean agertzen. Baina nire errealitatea ez da hori. Egiatan. Nire errealitatean huts asko dago, diru gutxi eta bakardade izugarria. Nik ordu gehiago egiten dut arazoaren artean, irtenbideen artean baino. Baina apurka-apurka ulertzen joan naiz neure burua engainatzen ez ibiltzea dela neure buruari eskatu behar diodana. Ni ez bainago batere ados ez batean ez bestean ez sartzearekin. Ez nabarmentzearekin. Ana Urkiza badoa gure ttakunetik eta, itxura denez,

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Urkiza

beste norbaitek erreleboa berehala hartuko dio (beste hori nor den nik badakit, baina ez diot irakurleari sorpresa hondatu nahi). Nik banuen Ana Urkizaz iritzi bat, baina kaxkar eta estua, oso azaletik erabakitzen diren horietakoa. Gezurra iritzi bihurtu, iritzia sinestu, gezurra egia bihurtzen

dugu, eta, azkenean, egia horiei balio unibertsala ematen diegu. “Haurretan berdina horretan, uste zuen begiak itxi eta ezer ikusi gabe geldituz gero, hori nahikoa zela munduak bere edukia gal zezan; ikusi nahi ez zuen hura erabat desager zedin”, aspaldi irakurri nion Bernardo Atxagari. Mikel Asurmendi atal hau koordinatzen eta gu zaintzen saiatzen da, nola gainera, ezin hobeto edozein mailatan, baina gordean beti. Berak egin zidan bertan parte hartzeko gonbita, eta berak eman zidan, noski, Ana Urkizarekin batera aritzeko aukera. Eta noraino izan zaidan lagungarri ezin dut ondo esplikatu, zaila egiten zait buruan eta bihotzean daukadan guztia esatea. Batetik, niretzat benetako plazera izan delako harekin ttakunean aritu izana. Etenik gabeko hariak bezalakoa izan direlako bere artikuluak, ondo lotutako paisaiak, bizitza bizitua. Eta bestetik, eta hau da azpimarratu nahi dudana bereziki, gordean ere aritu delako ni laguntzen, ni animatzen eta ni infernutan ez hondoratzen uzten. Bi, hiru hitzekin, besterik gabe. Bi, hiru hitz momentu jakin batean, hitz horiek gehien behar dituzunean, irlak itsaso zabalean bezala. Hamaika agur hitz eta bat gehiago Anarentzat. Eta Beñatek bikain asmatu zituen “datsegit” eta “desatsegit” bi horien artean, erraz erabaki dut nik gaur nire: hamaika “datsegit” eta bat gehiago Ana Urkizarentzat. ■



Nik banuen Ana Urkizaz iritzi bat, baina kaxkar eta estua, oso azaletik erabakitzen diren horietakoa. Gezurra iritzi bihurtu, iritzia sinestu, gezurra egia bihurtzen dugu, eta, azkenean, egia horiei balio unibertsala ematen diegu



GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Carmen Valois

NUPEKO IRAKASLEA

Kontsumo taldeetatik Gazara

Badira hilabete batzuk kontsumo taldeci buruzko hitzaldi batean egon nintzela. Bertan, EHNE sindikatu-ko kide batek azaldu zituen talde horien dinamika eta filosofia.

Geroztik, bueltaka nabil gai honekin, eta ibairra harriak botatzerakoan egiten diren segidako uhinen antzera, hala darabilzkit pentsamenduak, zabaltzen eta zabaltzen.

Honakoa bere tesia: gure inguruko nekazariak lantzeko duten lurra gero eta eskasagoa da, ondorioz garestiagoa. Bestetik, azken urteotan bertako landare mota asko galtzen joan direnez, hazi motak gero eta urriagoak dira. Hazien merkatua sektoreko enpresa erraldoiek kontrolatzen dute, eta aldi berean, saltzen dituzte horiek tratatzeko behar diren produktu fitosanitarioak. Nekazariak gero eta produkzio intentsiboagoak egiten behartuak daude, diru inbertsio handiak direla medio. Ostean, saltoki handiek erosten dute beren produkzioa. Hasiera batean prezio bat adosten dute, baina hurrengoan prezioak merkatu egin behar dituztela esaten diete, bestela produkzioa ez diete erosiko, eta horrela gero eta gehiago estutzen dituzte.

Baina ziur aski, saltoki handienetan erosten dugunean ez gara horretaz jabetzen. Ez gara ohartzen produktu merke bakoitzaren



DANI BLANCO



Aaiunen gertatutakoa: sarraskia

salatu orde, bi hilabetera

akordio komertzialak sinatu

dituzte Marokorekin,

inolako trabarik gabe



atzean baldintza ez duinetan egindako lana egon daitekeela, behargin bat behartua, gurea ala beste herrialdeetako izan, berdindio. Ez gara konturatzen aipatutako kate maltzurak berarekin dakarrela suntsiketa: hitzak, hizkuntzak, ohiturak... Bitartean, gure auzo, gure herrietako dendak desagertzen eta kaleak itzaltzen joaten dira. Eta honekin batera, kultura eta mundua ikustatzeko era.

Ekonomiak mendeen hartu gaituen garaiotan, balio instrumentalak gailendu zaizkie berezko balioei; dena bilakatu nahi dute trukagarri. Hala uzten dute agerian hainbat gertakari, non estatuen interes “estrategikoak” giza-kion eta giza duintasunaren aurretik lehenesten diren. Adibidetzat Aaiunen gertatutakoa: sarraskia salatu orde, bi hilabetera akordio komertzialak sinatu dituzte Marokorekin, inolako trabarik gabe.

Anartean, beste batzuk Gazara doaz, giza laguntza eramatera. Oraindik gizarte zibil konprometituen barnean berezko balioek bizirik dirauzelako, elkartasuna tarteko. Eta existitzen direlako imajina ditzaket Gazako gazteak harriak botatzen, ibaira, soldadurik gabeko lurralde aske batean. Denon artean baldintzak sortu ditugulako. Guk, horretan sinesten dugunok, irakurle. ■

TXANDAN

Juan Ramon Mankuso



Deigarria da nola ari den txertatzen gure kultura eta gizartean, fisikoaren inguruan, betierekotasunaren ideia, badirudi ez

dugula aitortu nahi, jaio-eta, egunak eta urteak, gure ezaugarrietako bat direla, gurekin bat datozela. Hau diot, azkeneko boladan gero eta gehiago ari zaigulako ohiko egiten adina ezkutatze joera, zahartzarora, bere baitan gaixotasun bat izango balitz bezala. Duela gutxi igandeko egunkarietan etortzen den aldizkari gehigarrietako batean, bere azalean agertzen zen Sofía Loren

Edertasuna eta adina

aktorea, eder eta lirain. Bere itxurak gehiago zeukan berrogei urteko emakume batena hirurogeita hamaseiko batena baino. Nire zalantzak ditut hori egokia den; irudi hori saltzearena, zertara datorren. Itxura, argi eduki behar dugu ez dela benetakoa —esan behar diet ARGIAko lagunei nire aldameneko argazkia gaurkotu behar dugula, urteak ez dira-eta alferrik igarotzen—, edertasuna urteen poderioz eraldatu egiten baita, baina ez da desagertzen. Edertasuna beti hor egongo da, ikasi behar duguna da begiratzen, bera aurkitzeko, kale kantoien bestaldean. ■

Isabel Etxebarria

URRUÑAKO HAUTETSI ABERTZALEA

Guk ere demokrazia

Asteburu honetan gure herrian Jon Telleria izan dugu gogoan. Jon Urruñara bizitzera etorri zen eta laster baino fiteago integratu zen bertan, tokiko elkarteetan sartuz eta tokiko jendearekin harremanak sortuz.

Jon ez da inoiz gorde, herriko karriketan ikusten genuen, bere herrian bezain gustura ikusten genuen. Nonbait pozgarria zen guretzat, gazte independentista ez baitzen galdua sentitzen. Hemen egindako lanaren ondorioa dudarik gabe. Ostiralean, bere mezua entzun dugu, argi, ozen, herriarekiko atxikimendua aldarrikatzen. Gure indarra gazterian dago. Noiz arte atxikiko dute preso?

Arabiar herrialdeetan goraki demokrazia eskatzen dutelarik, herri mobilizazioetan agintarien kritikak oihukatuz, despoten salatzaille, kanporatzaile, eredugarriak direlarik hain handiak omen diren gure demokrazietan zer diogu, zer berri, zer gogoeta berritzaile sortzen al da? Bai, European, Frantzian eta Espainian, politika egiteagatik zenbat daude preso? Tunisian, Egipton presondegiak irekitzen dituztelarik, gurean gero eta jende gehiago preso sartzen da politika egiteagatik. Egoerak ez dira errexki desblokeatzen. Froga asko behar omen dira independentistez fidatzeko, baita euskaldunen artean ere.

Pasaia herria dolutan izan da asteburuan, bi euskal presoren aita zendu baita. Seme



GAIZKA IROZ



Ipar Euskal Herria

guzti horretan partaidea da.

MAMen (Michèle Alliot-Marie)

gezurra azaldu da. Haatik,

Max Brisson jaunaren

gibelean ez da UMP

berri bat sortu



bat Clairvauxko espetxean dago, aitaren ikusteko baimena eskatu zuen, baina epai-leak ukatu dio. Gutxieneko jendetasuna galdu du, sekulan izan badu, frantses justizia sistemak. Norberari gurasoaren agurtzeko aukera ukatzeak ez du izenik. Egunero presoek jasan behar dituzten irainak, zangopilatzeak. Gure demokraziak gaixorik daude, hesten dira, beldurra zabalitzen dute.

Alta, udaberri aldera goaz, Herri Urrats, Korrika hurbiltzen zaizkigu, euskarari diogun atxikimendua erakusteko parada ezin hobeak, euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatzeko uneak. Baliteke gure hizkuntzaren babesteko behar dugun independentziarako bidea hurbil izatea. Argi izpiak daude.

Ipar Euskal Herria guzti horretan partaidea da. MAMen (Michèle Alliot-Marie) gezurra azaldu da. Haatik, Max Brisson jaunaren gibelean ez da UMP berri bat sortu. Max Brisson jaunak Estatuaren justizia eza hobesten du.

Denboraren kontrako lasterketan gaude, euskaltasunaren berpizteko lanak erraldoiak dira. Baina horretara goaz. Lehia irabaziko dugu, abertzale guztiak gure alderdikeriak gainditzeko gai baldin bagara. Hau baita gure ahulezia. Helburua argia da, eremu politikoa gureganatu, herritarrak konbentzitu, gure helmuga independentzia da zazpi herrialdez osatua. Hau da demokrazia. ■



laia
sagardotegia

arkolla auzoa 33 • Hondarribia
Tel.: 943 646 309
info@laiaerretegia.com

www.laiaerretegia.com

Nekane Alonso Santamaria

BILBOKO UDALEKO BERDINTASUN SAILEKO ZINEGOTZIA

Martxoaren 8a: Aldarrikapen feministek 100 urte

Emakumeen Nazioarteko Eguna 1911n ospatu zuten lehen aldiz. Borrokak iraun duen 100 urteko aldi honetan bizitzarekin eta gizartearekin konpromiso handia hartutako emakumeok mundu guztiko etorbide eta kaleetara irten gara oraindik baliatzea ezinezko egiten zaizkigun eskubideen eskakera eta aldarrikapena egiteko. Arlo politikoan, zibilean, ekonomikoan eta kulturean baldintza berdinekin parte hartzeko eskubideari eman behar diogu garrantzia, baita sexuaren arabera edozein bereizkeria eta horren adierazpen argiena den indarkeria matxista errotik kendu beharrari ere.

Gaur, martxoak 8, oraindik ere Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzen dugu mundu zein tokimailako datuek onartezinak izaten jarraitzen dutelako. Zehatzago, gure inguruan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun formalak lortu bada ere, asko dugu oraindik ere lortzeko. Horrela bada, adingabekoen zaintzaren ardura, gehien bat, emakumeek dute eta erantzukizun horrek ez du, ez balorazio sozialik, ezta ekonomikorik ere. Horiek horrela, ez da harritzekoa murgildutako ekonomian langile gehienak emakumeak izatea, edo batez besteko

Horiek horrela, ez da harritzekoa gero, murgildutako ekonomian langile gehienak emakumeak izatea, hiru emakume langiletatik batek aldi baterako



kontratua edukitzea edo emakumeen batez besteko soldata gizonena baino % 20 txikiagoa izatea.

Aintzat hartzen ditut elkarteetan antolatuta dauden emakumeak geure eta komunitate guztiaren bizi-baldintzak hobetzeko funtsezko rola baitute; batez ere, auzoan, auzoak gizarte-mailan berebiziko garrantzia duelako eta etxeko mundu pribatuaren eta hiriko espazio publikoaren arteko zubia delako.

Emakumeok berdintasuneko gizartea aldarrikatu nahi dugu; hau da, familian, gizartean, arlo sozialean, politikoan, erlijioarenean zein lan-arloan baldintza berdinetan gizonak eta emakumeok baloratuak izan gaitezten berdintasuneko gizartea aldarrikatu nahi dugu. Lanbide-jardueran, familiaren arloan, zerbitzuetan eta baliabideetan partaidetza orekatua aldarrikatzen dugu, bizitza pertsonala, familia zein laneko bizitza modu egokian uztartzea ahalbidetzeko.

Horregatik, martxoaren 8 honetan, genero-berdintasunaren alde eta ekintza positiboen politikak garatzearen alde egiteko konpromisoa hartu duen Bilboko Udaletik eta emakumeen elkarteekin batera gonbidatu nahi zaituztegu Bilboko emakume eta gizon guztiok martxoaren 8a ospatzeko antolatutako jardueretan parte hartzera. ■

Adingabekoen zaintzaren ardura, gehien bat, emakumeek dute eta erantzukizun horrek ez du, ez balorazio sozialik, ezta ekonomikorik ere. Horiek horrela, ez da harritzekoa murgildutako ekonomian langile gehienak emakumeak izatea, edo batez besteko soldata gizonena baino %20 txikiagoa izatea

gametxo
HOTELA



Gametxo Auzoa • Ibarrangelu, Bizkaia • Tel.: 94 627 77 10 • www.hotelgametxo.com

Korrika kulturala

Euskara, ikus-entzunezkoetatik bakarrizketara

Hurreratzen ari da Korrika 17, eta euskaldunok batuko gaituen festa horren harira, Korrika Kulturalaren baitan hainbat ekimen aurkeztu dituzte, tartean bi berrikuntza: Euskalaketa eta Euskalaklip lehiaketak.

UXUA LARRETXEA

Argazkiak: Korrika 17

“MAITATU, ikasi, ari... Euskalakari!”. Horixe da 17. edizio honetarako Korrikak hautatu duen mezua eta proposamena lau haizetara zabaltzeko, bi egitasmo berri aurkeztu dituzte antolatzaileek: Euskarazko bideo laburren lehiaketa (Euskalaklip) eta bakarrizketa lehiaketa (Euskalaketa). Bai batean bai bestean euskara maitatzen, ikasten eta erabiltzen duenari egin nahi zaio gorazarre.

Korrikaren mezua ohikoak ez diren bitarteko komunikatiboen bidez zabaltu nahiak dira, eta zuzen Korrika Kulturalako antolatzaileek Euskalaklip bideo lehiaketa berritzailea abiaraztera. “Gazte jendearengan bideogintzak eta ikus-entzunezko komunikazioak duten garrantziaz jakitun, ideia ona iruditu zitzaigun ekimen hori martxan jartzea, adin tarte horretako jendearengana iristeko”, azaldu digu Korrika Kulturalako arduradun Sergio Regueirok. Eta gazte jendearentzat aproposa izateaz gain, ikus-entzunezko ikasketak egiten diharduen nor-nahik ere aukera polita dauka lehiaketaren bidez bere lanak erakusteko.

Euskalaketan parte hartu ahal izateko gehienez hiru minutuko bideoa aurkeztu behar da, eta denbora tarte horretan Korrikaren mezua (Maitatu, ikasi, ari... Euskalakari!) gutxienez behin azalduko da. Halaber, parte-hartzaileei ezinbestean erabili beharreko hiru segundotako bideoa helaraziko zaie. “Bideoak bildu ahala webgunean zintzilikatzen joango gara, eta, jendeak lanak bozkatzeko eta gustukoekin zein duen adierazteko aukera izango du”.

Bisitarien iritzia aintzat hartuko badute

ere, ikus-entzunezko irakasleek osaturiko epaimahai batek izango du irabazlearen izena jakinarazteko

ardura, eta adierazi dutenez, ideiarik ederrena izango da saritua. Martxoan Korrikaren webgunean bertan ikusteaz gain, Tuenti edota Vimeo gisakoen bitartez ere zabaltzeko da hautaturiko bideoa. Sariari dagokionez, Euskalaklip-eko irabazleak Mac ordenagailu bat eskuratuko du. Saria banatzeko ekitaldia Korrikako azken egunean bertan egingo da, Donostian, Euskalaketen finalarekin batera.

Euskarazko umorea aldarri

Euskal Herriko Antzerkizale Elkartearekin elkarlanean jarri

17^{ek} korrika
euskalaklip



dute martxan Korrika Kulturalakoek bigarren proposamena, Euskalaketa –euskarazko baka-
rrizketa lehiaketa–. “Euskalakari hitza zabal-
tzeko bitartekoen gai-
nean pentsatzen genbil-
tzala, ohartu ginen oro
har Euskal Herrian ez
dela euskarazko baka-
rrizketarik egiten, eta,
orduantxe jabetu ginen
ideia polita izan zitekeela
antzerki formatu hori
lantzea”, azaldu digu
Sergio Regueirok. Izan
ere, Villabonan lehenen-
goz iaz jarri zuten mar-
txan gisa horretako
lehiaketa bat, baina herri
formatuan soilik jorra-
tzen da, eta horrenbes-
tez, euskarazko antzerki-
gintzan eremu berri bat
sustatzea egoki ikusi zuten Korrikako antola-
tzaileek. Hala, euskal kultura batetik eta
antzerkia bestetik jorratu nahi
izan dituzte ekimen horrekin.
Esan eta egin; Antzerkizale
Elkartearengana jo zuten eta
erantzun ezin hobea jaso.
“Korrikarekin elkarlanean ari-
tzea guretzat gozamen da, eta
gainera, gure elkartearen xedea
beti izan da euskaraz eginiko
antzerkizaletasuna sustatzea”,
baieztatu du Idoia Gereño EHA-
ZEko idazkari-koordinatzaileak.
Garrantzitsua deritzo euskarazko bakarrizke-
ta formatu hori landu eta geureganatzeari,
euskarazko umorea egon badagoelako haren
esanetan, lantzea falta ei zaigu, ordea. “Maiz
bakarrizketak eredu amerikarrarekin lotzen



Artista asko bildu ziren Korrika Kulturalaren aurkezpenean. Euskalaketa eta Euskalaklip lehiaketei esker, artista berriak ezagutzeko bidea ere izango dugu.

**“Bideoak bildu ahala webgunean
zintzilikatzen joango gara, eta,
jendeak lanak bozkatzeko eta
gustukoen zein duen adierazteko
aukera izango du”**

**SERGIO REGUEIRO,
KORRIKA KULTURALEKO ARDURADUNA**

ditugu, edo behinik behin guretzat erdalduna
den eredu batekin; baina euskaldunok ere
umore handia daukagu!”.
Horren adibide gisara aipatu ditu
Wazemank telebista saioa, edota
Kutsidazu bidea, *Ixabel* edo *Ama
begira zazpi* antzerki lanen gisako-
ak. Hori bai, gure umore hori
erakutsi eta normalizatzearen
beharra aldarrikatu du, euskaraz
ondo pasa dezakegulako.
Euskara eta antzerkia, antzerkia
eta euskara; dikotomia hori
gurean ez da berria, historikoki
antzerkia –nagusiki XX. mende hasieran–
euskara bultzatzeko erabili izan baita. “Eus-
kara teknikoki erakutsi beharrean, modu
dibertigarriagoan eta errazagoan bultzatzeko
erabiltzen zen”.

Ondarre
B A S E R R I A

20214 Segura (Gipuzkoa) • Tel: 943 80 16 54
ondarre@hisipavista.com • www.nekatur.net/ondarre



Euskalaketa kanporaketa bakoitzean lehiakideek bi lan egin beharko dituzte: hasteko, gehienez zortzi minututan aurretiaz prestatuturiko gai libreko bakarrizketa saioa erakutsiko dute, eta bigarren lanean, Euskalakari hitza landu beharko dute. Azken proba hori egiteko parte-hartzaile bakoitzak gehienez bost minutu izango ditu. Haatik, bai batean zein bestean antzezpen formatua erabat librea izango da, norberaren sormen lanaren arabera.

Sergio Regueirok azpimarratu bezala, bi ariketa horien xedea euskalakari-rik onena hautatzea izango da, euskara modu trebeanean erabiltzen duena, alegia. Izan ere, euskaraz mintzatzeko gaitasuna erakusteko bitarteko bat da bakarrizketa, eta hain justu, gaitasun hori izango da Antzerkizale Elkarte-kideez osaturiko epaimahaiak aintzat hartuko duen alderdietako bat. Euskara maila izango dute kontuan: euskara jatorra ba ote darabilen, testura eta testuingurura egokituta ba ote dagoen... Halaber, testua bera ere aintzat hartuko dute, originaltasuna, sormena eta edukia baloratzeko. Azkenik, antzezpen uneak edo emanaldiak ere bere pisua izanen du. Edonola ere, ikusleen erreakzioa kontuan izango dute, bakarrizketa bakoitza baloratzeko neurgailu ona delako. Horren harira, Gereñok nabarmendu du epaileak ikusleak ere badirela, eta hortaz, ikusleak gozatzen badu epaileak ere gozatuko dutela, eta alderantziz. Behin hori esanda, gehitu du epaileak arreta beste zenbait alderditan ere jarri behar dutela. Lurralde bakoitzean bi epaile izango dira, baina horiez gain, kide bat emanaldi guztietan izango da, irizpide antzekoak erabili asmoz.

Euskalkiek koloreztatutako saioak

Euskarazko bakarrizketa horien alderdirik politenetako bat euskalkien presentzia dela nabarmendu dute Sergio Regueirok eta Idoia Gereñok. "Kanporaketak lurraldeka planteat-

Euskalaketako kanporaketak

GUTXIENEZ kanporaketa bat egingo da lurraldeka eta horietan seina lagun arituko dira. Beraz, zenbait lurraldetan parte-hartzaile kopurua gorabehera kanporaketa bat baino gehiago egingo dira. Saioek ordu eta erdiko iraupena izango dute. honako hauek izango dira kanporaketa datak eta lekuak:

- **Martxoak 5 (20:00):** Baionan, Kalostrepe tabernan.
- **Martxoak 11 (20:30):** Iruñean, Arrotxapeako Onki xin tabernan.
- **Martxoak 18 (20:30):** Durangon, Plateruena kafe antzokian.
- **Martxoak 27 (20:30):** Agurainen, lekua zehaztu gabe.
- **Apirilak 3 (18:00):** Donostian, Doka kafe antzokian.

tzearen arrazoi nagusienetako bat euskalkien erabilera izan zen". Korrikako azken egunean (apirilaren 17an), hain zuzen ere, izango da Euskalaketa-ko finala, Donostiako Antzoki Zaharrean, eta bertara, lurralde bakoitzeko sailkatua iritsiko da. Beraz, egun horretan taula gainean denetariko euskalkiak entzun ahal izango dira.

Euskalakaririk onenak bi pertsonentzako Kariberako bidaia eskuratuko du, eta lurraldeko kanporaketan garaile ateratzen denak, aldiz, asteburua landetxe batean igarotzeko parada. Idoia Gereñoren aburuz, ekimena ezin aproposagoa da antzerki munduko jendearentzat, baina baita euskaltegiatako ikasleentzat ere. "Egia da euskara maila jakin bat edukitzea exijitzen duela, baina jende profil hori tankera horietako erronkei aurre egiten oso ohituta dago, euren egunerokotasunaren parte delako". Edonola ere, euskara maitatuz, euskara ikasi eta hobetzeko ahaleginak egiten dituen oro ongietorria izango da Euskalakipen eta Euskalaketan. ■

Euskalaklip lehiaketako bideoak dagoeneko ikusgai daude www.korrika.org webgunean. Baita, noski, Korrikari buruzko gainontzeko informazio guztia ere.





Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.







BIZKAIA

Karlos Zurutuza

Iraketik

الله اكبر

Abu Ghurayb
Al Basrah al Qadisiyah
Baghdad
An Kirkuk
Arbil
Al Faw
As Sulaymaniyah
Najaf
Al Havya
Zakho
Al Hillah
Mosul
Al Mawsil al Jadid
Ash Shatrah

GREETINGS
FROM
IRAQ

Karlos Zurutuza kazetaria

Iraken izango da

otsailaren 7tik aurrera.

AEBetako tropak etxera itzuliko dira
aurten, Iraken gerra hasi zutela zortzi
urte martxoan beteko direnean.

Ustezko trantsizio une hau gertutik
bizi ahal izango dugu Zurutuzaren
blogean, egunero, eta hilabetez.

argia.com/irak

argia

Otsailaren 15etik aurrera,
zenbait hilabetez,
Iker Blas politologoa
Hegoamerikan ibiliko da.



Bertan ikusi, bizi eta
ezagututakoak jarraitzeko
aukera izango dugu
Iparra Hegoan bere blogean.

argia

argia.com/iparra-hegoan

Zuberoako maskaradak

Kabana euskaldun bat den artean...

Santa Graziko gazteak dira aurten maskaradaren emaille. Santagraztarrei 1994an egokitu zitzairen azkeneko aldiz zeregin hori; egokituko zaie berriz etorkizunean? Horri buruzko zalantza zabaldu dute Santa-Grazi elkarteko lehendakari Laurent Chübürüren adierazpenek. Zuberoa osoaren termometroa ote Santa Grazi?

UNAI BREA

Argazkia: Marcel Bedaxagar

HERRIAN EUSKARA galtzen ari dela-eta, aurtengoa izan liteke Santa Grazik maskarada ematen duen azkeneko aldia. Hala esan zuen Laurent Chübürük urtarrian, aurtengo maskaraden egutegia aurkeztean. Duela 40 urteko 500 biztanleetatik oraingo 200etaraino mehetu da Pirinioei itsatsitako herri txikiaren populazioa. Biztanleriaren hein berean egin du atzera euskarak. 1968an ehunetik 95 ziren euskaldunak; 2011n, transmisioaren kateak begi gutxi ditu hausteke, eta eskolan frantsesa baizik ez da.

Santa Grazin gazte gutxik daki euskaraz, eta horrek kolokan jartzen du maskarada, Chübürüren ustez. Maskarada dantza baino gehiago baita. Mintzatzezeko parteak baitira maskaradaren arima. Kabanaren pherediküa, kauteren etengabeko jarioa, buhaumeen erregearen mintzaldia, kerestuen nagusiaren eta Pitxuren solasaldia... Euskaraz dira horiek denak.

Baina Zuberoa osoan ari da euskara gibelera-tzen, ez Santa Grazin soilik. Maskarada arriskuan da? Galdera horrekin joan gara herrialdeko errealtatea ongi ezagutzen duten zenbaitengana, eta Chübürürengana baino baikortasun handiagoa aurkitu dugu, egoera samurra denik inork defendatzen ez badu ere. "Maskarada nahi bezain erraz ezin antolatzea ez da oraingo kontua", diosku Xibero-ko Botzako Titika Rekaltek, "zeren Santa Grazikoa ez da kasu berezia, herri gehienena da". Aurtengo diferentzia da, Rekalten ustez, norbait ausartu dela publikoki esatera. Baikor ageri da, nolanahi, Rekalte. "XIX. mendean



ere esan zuten pastoralek ez zutela beste 50 urte iraungo..."

Maskarada, sintoma eta arma aldi berean

Jean Bordaxar Sohütako ikastolako lehendakaria da, eta zuberotar kulturaren ezagule fina. Hura ere baikortasunez mintzatu zaigu: "Chübürük aipatutako arriskua herri denetan bada, baina ni optimista naiz". Bordaxarren ustez, maskaradak erakusten du lehenik euskararen flakezia, baina euskara suspertzeko arma ere bada. "Maskaradari esker jende askok hartzen du

kontzientzia behar dela euskara ikasi, eta seme-alabei irakatsi". Sohütako ikastola talaia paregabea da euskararekiko atxikimendua neurtzeko, eta handik ikusten duenak baikor izatera darama Bordaxar: "Orain umeak dituzten gero eta gazte gehiagok hartzen dute kontuan euskara. Ume horiek emanen dute bost edo hamar urte barru maskarada beren herrietan".

Bestalde, Titika Rekaltek gogorarazi nahi luke maskarada bizi daitekeela euskaldun gutxiagorekin, mutil gutxiagorekin bizi ahal izan den bezala. "Beti topatzen ahal da *modus vivendi* bat. Aurtengo Kabanak, esaterako, ama du Santa Grazikoa, aita Barkoxekoa eta bera Garindainen bizi da. Agian eginen dira maskaradak ez herriko seme-alaba peto-petoeekin, baizik eta han-hemengoak gonbidaturik. Eta azken batean, maskaraden egiteko lau euskaldun behar dira, ez besterik: Kabana, Pitxu, buhaumeen jauna eta kerestuen nagusia".

Entzuleak ere komeni, ez dezagun ahantz. ■

Liburuak

KRITIKA

3 Mariak.
Arantxa Urretabizkaia.
Erein.
192 orrialde. 15,50 euro.

Helduen literatura
Gema Lasarte



Zahartzaroa ez da soilik memoria

ARANTXA URRETABIZKAIK hirugarren nobela du *3 Mariak*, eta testu honetan ere, literatur pertsonaia protagonista femeninoak hari narratiboaren ahots nagusi bilakatu ditu. Arantxa ez da alferrikako lanetan ibili, izan ere, literatur pertsonaia hauen ibilbidean eta ahotan zerbait berria jarri du. *Zergatik Panbox* (1979) eleberriko protagonista, ama abandonatu bat genuen, 70eko hamarkadan feminismoak mahai gainean jarri zituen gaien inguruan gogartu zuena. Hurrengoan, *Koaderno gorriak* (1996) ama azaldu zitzaigun, eta Urretabizkaia naziogintza eta amatasunaren artean zegoen urruntasunaren aurrean hausnartzera eramanez gintuen. Oraingoan, zahartzaroa hartu du gaitzat eta hiru emakume zaharren ahotsa jarri nahi izan du gerraostean inguruan hitz egiteko. Hau ez da berria ordea, izan ere, lehenik gizonezko literatur protagonisten bidez gerra ardatz tematikoa bilakatu baita eleberrigintza garaikidean (Izagirre, Saizarbitoria...) eta emakumezko literatur protagonisten begirada ere ikusi dugu gerrari so (Montoya, Jaio, Alberdi).

Urretabizkaia gerraostea, ordea, bizitzaren marra bat da, non hiru lagunek elkar ikusteari uzten dioten: bat lehen ahotsa eta protagonista nagusia (Mari Txuri) Euskal Herrian geratuko da; bigarrena, (Mari Gorri) erbestera joan beharrean izango da; eta hirugarrena, (Mari Haundi) gerra irabazitakoekin, handiekin galduko da. Baina zahartzaroa etorritakoan, alargundutakoan, hiruak bat egitea bihurtzen da protagonista nagusiaren xede. Eta hori da, benetan, eleberririk onen berrikuntza. Mari Txurik esaten digu zahartzaroa ez dela memoria soilik, zahartzaroa egunero modu duinean bizi behar den bizilegea dela, egitasmo bat dela.

Gaiari lotuz egindako ekarpenaz gain, eleberririk suspensea emateko, absentsiaz baliatzen den hirugarren protagonistaren jokoa eskaintzen digu Urretabizkaia: Mari Haundirena. Mari Haundi misterioa baita hasieratik bukaera arte eta horren peskiz ibiliko da irakurlea. Mari Gorri, izenak berak dioen modura, zahar transgresorea izango dugu, eleberririk ikuspegi semantikoa edota esanahia, eta Mari Txuri, berri, paper zuria idazteko eta kontatzeko prest dagoen bezala, etorkizunean aldaketak egiteko prest azaltzen dena. Beraz, pertsonaia-eleberririk honetan, gaiari dagokionez, berrikuntza Gorri ekarriko du; halaber, Urretabizkaia Mari Txuriren hizkerari darian sintaxi neurtua, aitzakia literario bihurtuko du ohituta gaituen kontatzeko era natural eta zuzena eskaini ahal izateko. ■

Eta liburu guztiak erreko bagenitu?

Ez da Ray Bradburyren *Fahrenheit 451* eleberria aldizkari honetan aipatzen dugun aurreneko aldia. 2.244. zenbakian, berbarako, iragarri genizuen Txalapartak genero distopikoaren klasiko hau euskaraz argitaratzekoa zuela, baina kontua horretan utzi genuen. Bada, 2010aren bukaera ikusi

zuen argia liburuak, Nagore Tolosaren itzulpenari esker, eta merezi du obrari tarte bat eskaintzea. Istoria aski ezaguna da: liburuak debekatuta dauden mundu batean kokatzen gaitu Bradburyk. Ele-



Fahrenheit 451.
Ray Bradbury.
Txalaparta.
242 orrialde.
17,50 euro.

berriko protagonistak, Guy Montagek, liburuak xerkatzea eta erretzea du ofizio. Baina halako batean, tentatuta sentituko da... ■

Serrano Izkoren 'Jauzika'

Hainbat esparrutan lan egin izan du Bixente Serrano Izkok, baina beharbada azkenaldian gehien landu duena, maiztasun aldetik behintzat, aforismoak izan dira. *Berria* egunkariaren webgunean daukan bloga (www.berria.info/blogak/bixente) jarraitzen duen orok ezagutzen ditu han paratzen dituen esaldi labur bezain sakonen zorrotasuna. Bada, horien antzekoak bildu ditu *Jauzika* liburuan. Titulua bezala irakur daitekeen liburua da, esaldi batetik bestera saltoka, burutazioz burutazio, aforismoz aforismo, zori jolas baten kapritxoek sortutako testuetan barrena. Lan fragmentarioa izan da ere, ordea, diskurtso osatua eskaintzen du liburuak. ■



Jauzika.
Bixente Serrano Izko.
Pamiela.
123 orrialde.
12 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



25 urte bidea egiten!
Ordiziako Gaztetxea.
Autoekoizpena.
Iraupena: 2h 3'.
5 euro.

Eskualde oso baten musika erakusleihoa

LAN ERRALDOIA egin dute Ordiziako Gaztetxeak Goierriko atzoko eta gaurko 45 talderen kantak prezio sinbolikoan saltzen den CD bikoitzean batzeko. Belaunaldiz belaunaldi Gaztetxeak atek zabalik izan ditu eta gauza bera egin dute bilduma hau osatzeko. Badira talde ezagunak: Potrotaio, Fist Fucking, Animese Martinez, Brigada Criminal, Hell Beer Boys, Milkshake, Geroh eta Fiachras, esaterako. Baina baita bestelako asko ere, eta estiloetan

punk-Oil, ska, noise-pop, rock kaletarra, crust-a, hard-rocka, post-hardcore, stoner, bakarlariak, hardcorea, punka, pop-rocka, metala eta bluesa ere aurki daitezke. Horrez gain, jakina, Laket taldeak urteurrenerako espresuki idatzitako kanta, Mulambo batukadari eta Pirritx eta Porrotxen laguntzari esker, kutsu dantzagarri eta itsaskorra gehitu diona.

www.fotolog.com/ordiziagaztetxea

Iker - Ordiziako Gaztetxeak asanbladako kidea

«Leku askea izan da gaztetxea betidanik, aukerak eman dituen»

Noiz bururatu zitzaizuen halako bilduma egitea?

Joan den urtean hasi ginen Gaztetxearen 25. urtemuga antolatzeko ideiekin. Horien artean DVDa, liburua eta honako CD bikoitza prestatzen hasi ginen. Hasiera batean Gaztetxean jo zuten taldeak sartzea pentsatu genuen, baina azkenean Goierriko talde guztiak gonbidatzea erabaki genuen eta 45 taldek baiezkoa eman dute. Batzuk argitaragabeko kantak dira, beste batzuk ez; batzuenak guk geuk grabatu ditugu eta beste batzuek euren kabuz egin dute.

Argi zenuten Laket taldeak egin behar zuela urteurrenaren kanta? Nolako kanta nahi zenuten, mezua erraz helarazteko moduko abesti parte-hartzailea?

Hasieran ez genuen abesti konkretu baten beharrik ikusten, azken finean parte hartu duten talde guz-



tiekin lortu baitugu mezua zabaltea. Gerora, Laketengana jo genuen abestia egingo ote zuten galdetuz, baina ez genien ezer zehatz eskatu. Eta honako hau egin dute Goierri oso ezaguna den Mulambo batukadaren eta Pirritx eta Porrotxen kolaborazioarekin.

Askok izan dira 25 urtetan Ordiziako Gaztetxetik pasa diren musika taldeak, ezta?

Bai, musikarentzat leku askea izan da Gaztetxea betidanik, aukerak eman dituen, kontzertuak kalean antolatu dituen, frontoietan, tabernatan, txosnatan... Baina 25 urteotan musika taldeez gain, beste pertsona asko ere pasatu dira Gaztetxetik asanbladaz asanblada eta 25 urte bidea egiten! leloa Gaztetxearekin era batera edo bestera harremana izan dutenei zuzendua dago.

Gaztetxe eta gazte asanbladek gora-behera asko izaten dituzte. Zein da gaur egungo egoera? Sasoitsu dago OGA?

Zikloak daudela egia da, baina orokorrean Gaztetxean ibili diren gehienek, bertan edukitako esperientzia betiko dela diote. Adin ezberdinen arteko harremanak zaindu beharrekoak dira, eta orain ilusioa badugula esan beharra dago. ■

Ezpalak

JON TORNER

Bi mundu gerren artean eginiko artea ikusgai Guggenheimen

‘KAOSA ETA KLASIZISMOA: ARTEA FRANTZIAN, ITALIAN, ALEMNAIAN ETA ESPAINIAN, 1918-1936’ erakusketa zabaldu dute Bilboko Guggenheim museoan. Bi mundu gerren artean Europan arteak izan zuen bila-kaera ikusteko aukera izango du bisitariak. 90 artista-ren 150 obra bildu dituzte. Tartean daude, besteak beste, Pablo Picasso, Georges Braque, Carlo Carra, Giorgio de Chirico, Otto Dix, Pablo Gargallo, Fernand Leger eta Ludwig Mies van der Rohe. Erakusketan maiztzen 15era arte izango da zabalik.

● **Giulia Colaizzi Gasteizko Montehermoso zentroko Emakume zinegileak zikloaren antolatzailea elkar-ritzketatu du *Diario de Noticias de Alavak*:** «Zaila da haizearen kontra egitea. Indar handia behar da. Existitzen dena errepikatzea da errazena. Ezagutzen duena du gustuko jendeak, patroia. Diskurtso zinematografikoetan plazer kodifikatuak daude. Film komertzial guztiak amaiera zoriontsua izatea... Hala bukatuko ez balira, defraudaturik sentituko ginatke. Orojakintzaren plazer instituzionala da. Segurtasun handia ematen du, erantzuna ez da airean geratzen. Balio ideologikoa du; bikote zoriontsuaren figura proposatzen da, familia tradizionalarena. Baina hori da ere jendeak gustuko duena».

● **Alfonso Gomez piano-jole gasteiztarrek *Euskonews & Media* agerkari elektronikoan:** «Musika klasikoa eta noizean behin jazz apur bat atsegin dut entzutea. Errespetu handia sentitzen dut azken horrekiko. Dena den, aitortu behar dut mota guztietako giro musikaren aurka nagoela. Nire ustez, uneoro musika entzutearen ondorioz (dendetan, bulegoetan edota merkataritzagune handietan) hutsal bihurtu dugu soinu-fenomenoa. Musikak gure errespetu eta kontzentrazio osoa eskatzen du, eta gizarteak benetan arretaz entzungo balu, seguruenik musika-gustuak asko aldatuko lirake. *Happy new ears*, John Cage aipatzearen. ».



Jean-Nöel Pinque, Jean-Pierre Luro, Lucien Joa eta Jean-Marie Haritchabalet kantariak Patrick Queheille barkoxtarrak idatzitako *Xabakoa* pastoraleko kantak eskainiko dituzte martxoaren 2an Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean, 19:30ean. *Iparraldea bertan* ekimenaren 10. edizioari ekitaldi horrek emango dio hasiera.

Agurtzane Elustondo legazpiarra (Gipuzkoa) izendatu dute Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak lehendakari. Mikel Gorrotxategi Alabierren lekukoa hartuko du Elustondok. Lehendakariorde berria ere hautatu du Trikitixa Elkarteak. Hemendik aurrera Josu Arrizabalaga Izerrek beteko du kargu hori. Alaitz Telletxearen lekukoa hartu du Arrizabalagak.

Berri Txarrak

taldearen *Folklore* abestia Independent Music Awards sariketan Punk Kantarik Onena kategorian lehiatzeko hautatu dute. Mundu osoko gal-



bahea pasa ostean, bost finalista besterik ez dira biltzen kategoria bakoitzeko. Epaimahaiaren erabakia martxoaren erdialdean jakingo da. Bien bitartean, Berri Txarrak-en aldeko botoa eman daiteke Internetez: www.independentmusicawards.com.

Xabier Mendiguren Elizegik *Sakoneta* (Elkar) plazaratu du, Abiadura Handiko Trena (AHT) ardatz duen eleberria. AHTren kontrako zenbait ekintzaile eta kazetari ziniko bat dira protagonista nagusiak. “Esperpentoaz eta karikaturaz” jokatu duela azaldu zuen idazleak liburuaren aurkezpenean, eta nobela “koral” dela, aberastasun handiena pertsonaien ahotsetan dagoela. Paperean argitaratu aurretik, Sustatun plazaratu ditu Mendiguren Elizegik liburuko atal guztiak.

San Telmo museoa (Donostia) martxoaren 28an inauguratuko da ofizialki. Herritarrek apirilaren 2tik aurrera bisitatu ahal izango dute. Egun horretan zabalduko da gaur egungo gizateriaren arazo eta gatazkak ardatz dituen *6 mila milioi beste* izeneko ikus-entzunezko erakusketa. Bi astera, apirilaren erdialdean, bilduma iraunkorraren gunea irekitzea aurreikusi dute. Uda ostean, *Federico Fellini. Ilusioen zirkoa* eta Euskal artearen inguruan erakusketak jarriko dituzte ikusgai.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

JON TORNER

Oroimina

Vals con Bashir.
Ari Folman / David Polonsky
Salamandra (2009).



BEIRUT (LIBANO), 1982KO IRAILA. Israeldar soldaduek zonaldea inguratzen zuten bitartean, milizia kristauek Sabra eta Chatila errefuxiatu-eremuetan sartu eta milaka palestinar akabatu zituzten. Ari Folman komiki honen egilea zen soldadu horietako bat. Hogei urtez ez zuen gau hartan eta ondorengo egunetan gertatutakoa gogoratzerik lortu. Denbora hori pasata, ordea, amnesia kolektiboari aurre eginez, puzzlea osatzen hasi zen.

Ahantzuratik atera nahi gaituen puzzle horren isla da 2008an estreinatutako *Waltz with Bashir* animaziozko filma. Ari Folmanek zuzendu zuen, eta David Polonsky ilustratzailea aritu zen zuzendari artistiko moduan. Urtebete geroago argitaratu zuten izen bereko komikia.

Indartsu hasten da, Folmanen adiskide Boaz-en amesgaizto-arekin, eta amaitu bitartean ere tentsio horri eusten dio istorioak. Falangista kristauek –israeldar tropen babes (inkontzientearekin?)– 1982an Libanon egindako sarraskiaren izugarrikeria gordin erakusten digu Folmanek, odolik gabe –azken orrietako argazkietan izan ezik–, baina egoeraren erokeria argi erakutsiz.

Tonu ilunak dira nagusi komikian. Aberatsa da grafikoki, unerren batean animaziozko film baten egokitzapena dela suma daitekeen arren: *fotograma* berean errepikatu egiten diren figurak, trantsizio azkarregiak... Protagonisten aurpegi eta mugimenduek baino, paisaiek erakarri dute nire arreta, suntsitutako hiriek, oihanak, hondartzak... eta liburu amaieran kolpean errealtatera eramaten gaituzten benetako argazkiek ■



Vitoria-Gasteiz

Gasteizen euskarazko
hauek ez galdu:

GOZATU EUSKARAZ LIBURUTEGIETAN!

Gonbit-fxartelak astebete lehenago.

ALDABE

- **Txita politik (haurtxoentzako ipuinak)**
Martxoak 10, 17:30 (12-24 hilab.)
eta 18:15 (25-36 hilab.)

- **Bitsa eskuetan (errezitaldia)**

Martxoak 17, 19:00. Gazte eta helduentzat.

ARANA

- **Bidaia magikoa munduan zehar**

Martxoak 30, 18:00. Magia. 6-12 urte.

ARIZNABARRA

- **Txitxin magikoa**

Martxoak 18, 18:00. Magia ikuskizuna. +5.

PILAR

- **Zientzialaria izan nahi dut (lantegia)**

Martxoak 15, 17:30 (6-8 urte) eta 18:30 (9-12 urte)

HEGOALDE

- **Liburuetako iratxoak: kontakizuna**

Martxoak 7, 18:00. Narrazio antzeztua. 6-8 urte

EUSKARA JALDI HADI PLAZARA

erakusketa

Bernart Etxepareren

Linguae Vasconum Primitiae ikusgai

Eusko Legebiltzarreko Tomas Moro aretoan

Martxoaren 31ra arte.

Astelehenetik ostiralera: 09:00 - 19:00.

Asteburuetan: 10:00 - 14:00

KORRIKA KULTURALA

- Martxoak 15, 20:30, Parra
- **Petti**-ren kontzertua
- Martxoak 17, 20:30, Elkar liburudenda
- Komiki tailerra. Josevisky (Arkatzbakar estudioa)
- Martxoak 19, 20:00, Beñat Etxepare antzokia
- **Sekula bai**. Antzerki lana
- Martxoak 29, 20:30, Aldabe gizarte etxea
- **Adierazi zeure burua, adierazi zure hizkuntzan**
- Bertso-rap tailerra.
- Apirilak 2, 20:30, Jimmy Jazz
- Kontzertua. Tate King, 121 Krew, Delaoja

ARABATAKADA

Apirilak 1, Mendizabala

Berri Txarrak + Esne Beltza + Zea Mays...

**Etorri eta gozatu
gurekin!**



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

ANA ZAMBRANO



DANI BLANCO

UMEL JARRI ----- PERTSONAIA- REN IZENA	ANATOLIAKO HIZKUNTZA ----- GIPUZKOAKO HERRIA	ADAR TXIKI, KIMA	DANI BLANCO		ZUHAITZ MOTA ----- ZAMAK ALTXATZEKO MAKINA	JARIATU, ERION ----- GREZIAKO POETA	SOLDATA ----- HERRI BAXE- NABARTARRA
							
EUSKAL IRRATI- TELEBISTA ----- IRRIBERA			HURBIL ----- APIAKO HERRITAR		HELDULEKU ----- MARMOKA	UZTAIL ----- PERTSONAIA- REN ABIZENA	
500 ----- NARRASTI POZOITSU	ZAURIA ----- PERTSO- NAIAREN SORTERRIA					BEGIRADAK ----- IRMO EZARRI	
		HERSTURA ----- GAIXOTASUN INFEKZIOSOA					MODU ATZIZKIA ----- AINGIRAREN KUMEA, TXIXKARDINA
IZENA EMAN	ARTE (NEO- LOGISMOA) ----- ELEKTRODO POSITIBO		IKARAZ, DARDARAZ ----- TEKLATUA- REN GILTZA				ERREPIDE
					ELIZ DEIAK ----- LEHENGUSU, LEHENGUSI- NA		
SODIOA ----- BUZTINA LANTZEKO PLATERA		APUR BAT HOTZ ----- ZEIN TOKITAN				HARAGIAREN MINTZA ----- SOTO	
			SUBSTANTZIA ELASTIKOA ----- ARGONAREN SINBOLOA				METROA ----- 501 ERROMATAR ZENBAKIZ
AGUR ----- JOATERA BEHARTU					SUTE ----- AZKENA		
						TREBE, ABIL	

	U	H				P	J	H
A	M	A	I	A		G	A	B
E	I	T	B			G	A	R
A	L	A	I	A	H	L	O	P
S	D	T	R	A	U	M	A	S
		G	E	T	P	R	E	S
B	A	T	A	I	A	T	U	M
N	A	F	R	E	S	K	O	G
T	O	R	N	U	K	A	U	T
	D	I	O	S	A	Z	I	A
	O	A	N	A	R	A	I	O

beranduegi

ARGIAren albistegia interneten

Beranduegi gatoz, telezaborrak hartu dizu egongela. Txutxumutxu, pilota partidu, reallity show eta informazio transgenikoek burmuina kutsatzen dizute.

Bai, guri ere bai.

Horregatik erabaki dugu ARGIA n, astean behin Interneterako propio pentsatutako telebista saio bat egitea. Euskarazkoa. Ironikoa. Berritzailea. Laburra, baino sakona.

Beranduegi... ohiko eredueta erortzeko.



**telebista
saio
berria**

Asteartero...

- » elkarriketak
- » blog irakurketa
- » erreportaje sakonak
- » aktualitatearen analisi ironikoa
- » lehiaketa barregarriak
- » ...

www.argia.com

www.beranduegi.tv



Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Makinak, pixkanaka, hurbiltzen ari zaizkigu

AEBETAN BADAGO oso telebista-lehiaketa ospetsua, *Jeopardy* izenekoa ("arriskuan" litzateke euskaraz). Jokoa hainbat datu ematen dira eta parte hartzaileek datu horien oinarrian dagoena edota datu horiek adierazten dutena asmatu behar dute. Asmatzeaz edo ez asmatzeaz gain, lehiakideek erantzuna emateko garaian duten segurtasuna ere kontuan hartzen da.



INTERACTIVE.WXXI.ORG

Brad Rutter izan da lehiaketaren historian diru gehien irabazi duena, guztira 3,2 milioi dolar, eta Ken Jennings izan da programa segida handiaren irabazle gisa iraun duena; Jenningsek 2,5 milioi dolar eskuratu zituen. Berriki, biek parte hartu dute *Jeopardy*ren saio batean lehiakide "berezi" batekin: Watson IBMren superordenagailua. Eta nork irabazi du? Bai, irakurle, Watson ordenagailua izan da irabazlea.

Orain arte, tankera honetako jokoetan ordenagailuak eta pertsonak aurrez aurre jarri direnean, beti gizakiak irabazi izan du, eta erraz gainera. Oraingoan ez da hala gertatu; horrek erakusten digu inteligentzia artifizialaren alorrean egindako aurrerapena norainokoa den. Pertsonen eta makinaren arteko aldea gero eta txikiagoa dela dirudi.

Apoximia: landare bikiak

IKERKETA AGRONOMIKORAKO FRANTZIAKO INSTITUTUKO (INRA) ikerlariak lehen aldiz lortu dute apoximia landare sexualetan. Landare sexualetan erraza da apoximia gertatzea, hau da, landare baten ondorengorak jatorrizko landarearen geneen klonak izatea; baina landare sexualetan, polinizazioa gertatzen denez, jatorrizko landarearen ezaugarri batzuk baino ez dira transmititzen.

Science aldizkarian argitara emandako artikuluan, landare sexualetan apoximia aplikatzeko bidea erakutsi dute ikerlariak. Aurkikuntzak oso ondorio garrantzitsuak izan ditzake nekazaritzaren alorrean, batez ere, genetikoki oso onak diren landareak hautatu baitaitezke eta horiengandik sortutako landareek gurasoen geneak mantendu baititzakete.



WWW.ARTEYFOTOGRAFIA.COM.AR

Bizitza hobetzen duen mutazioa

Jaime Aguirre-Guevara medikuak oso populazio berezia topatu du Ekuadorren. Gorputzez gutxi hazten dira, baina diabetes eta kantzerraren aurkako geneak garatzen dituzte. Antza, isolamenduak badu zerikusia ezaugarri genetiko horiei eustearekin.

<http://ttiki.com/23788> (Frantsesez)

Loak laguntzen du gauzak memorian gordetzen

Etxean batzuk entzun izan dugu azterketak egin aurretik ona zela ongi lo egitea, aztergaiak aurrez ongi ikasiz gero noski. *Journal of Neuroscience* aldizkarian argitara eman den artikulua batek ikasle garaian etxean esaten ziguten hura zuzena dela frogatzen du.

<http://ttiki.com/23789> (Frantsesez)

Lurrikaren detekzioa hobetu nahian

Turkiako Izmit herrian izugarrizko lurrikara gertatu zen 1999. urtean: 40.000 pertsonatik gora hil ziren. Orduko hartan zientzialariek bildu zituzten datuei esker, aurrerapauso nabarmenak egin litezke orain lurrikaren prebentzioan.

<http://ttiki.com/23792> (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Kukuarena jo

KIRATS EDERRA botako zuen balearen sainaz betetako lanparak metxa piztua zuenean... Gaur egun Europan gasolina eta gasolio usaina den antzera, garai batean arrain koipearena izango zen nagusi. Argiontzi haien luxua arropan zeramaten arrain usainarekin neurtuko zuten...

Argiontzi edo lanpara haien metxa edo mukia *Lychnis* generoko landareen zortinarekin egiten zen. *Lychnis* hitzak grekoz argia esan nahi duela nioen lehengoan eta *Lychnis* hitzak lanpara edo argiontzia, nonbait. Kandela-metxak ere egin izan omen dira zorten horiekin. Genero horretako *Lychnis* jendearen artean geurean bat da ezaguna: *Lychnis flos-cuculi*, kukuak jotzen dueneko lorea duena, alegia.

Isuri atlantikoko sega-belaze hezeetan ugaria da, ikuseraza: belar gainean ageri dira, luxe, lore arrosa politak. Tximeleta eta erle ugarik gustuko dute. Eztarriko korapiloak leuntzen ari da eta egun hauetakoren batean kukuka hastekotan da kukua. Haren armonian loratuko da euskarazko izenik topatu ez diodan *Lychnis flos-cuculi*. Kukulorea esango nioke nik.



Lychnis flos-cuculi, kukulorea izan liteke euskaraz.

KRISTIAN PETERSEN-CC BY SA

Kukuaren kukukada mugarrria da gure paisaia kulturean. Kukupraka, kukubelar, kukuporro edota kukulore deitzen zaie *Digitalis purpurea* landare magikoari, *Papaver rhoeas* lo-belarrari, *Digitaria sanguinalis*

oilar-buztanari, *Pulicaria dysenterica*-ri eta *Aquilegia vulgaris*-eri. Adarrak jarri dizkioten arrari ere kukua deitzen diogu euskaraz; adarrak jarri dizkiote ala kukuarena jo diote? Udaberriko odol berri-tzearekin kukuarena gehiago jotzen ote den galdetu diot lagunari eta erantzuna: ez adarririk jo!

Kukuak egunez jotzen badu ere, gaez besterik ibiltzen ez diren tximeleta batzuek ere *Lychnis* izena dute.

Tximeleta hauen sitsak udaberrian kukulorearen hostoak janez hazten eta metamorfizatzen baitira. Gero udan azarenak jango dituzte. Kukuak jotzean loratzen den kukuloreak mantentzen ditu bizirik gero azari burua egiten utziko ez dioten sitsak. Sitsak jotako burua. Hau buruhaustea! Eta ez da azaren azpiko orria!



JAKOBA ERREKONDO

Txerto sasoia da

Txertatzea, mentatzea, eztitzea edo enpeltatzea deitzen dugun lana egiteko sasoietako batean gaude. Neguaren amaieran, urte berriko izerdi berriaren etorreran txertatzen dira fruitu arbolak. Zotzezko txertaketa da oraingo hau.

Txertatzearekin betirako elkarrekin bizi beharko duten bi landare elkartzen ditugu: azpiko mentu-oina eta gaineko barietatea. Argazkikoa gereziondoa da. Nabarmena du txertoaren kozkorra. Bi landare izaki, elkartzen dituen zauria muga bat da eta janaria alde batean pilatuta hura askoz gehiago hazten da beste aldea baino. Beste txerto batzuetan alderantzizkoa gerta daiteke, beheko aldea gizenagoa izatea, alegia. Zauri-muga hauxe da arbolak fruta gehiago ematearen arrazoietakoa bat, landarea erdipurdi bizi da eta bereak egingo duenaren beldur, badaezpada, fruta emango du.


Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Thomas Cook, lehen bidaia agentea



JOSE LUIS MAQUEIRA



ASPECTS OF YORK LIBURTIK HARTUA

Ezkerrean, Thomas Cook konpainiako hegazkin bat. Esquinean, Thomas Cook bera; bidaia antolatuen eta bidaia agentzien sortzailea izanda, turismo modernoaren aitzatzat jotzen da.

LEICESTER (INGALATERRA), 1841EKO UZTAILAREN 5A. 570 lagun Loughborough-era joan ziren Midland Counties Railway konpainiaren pleitatutako trenean, biltzar antialkoholiko batean parte hartzeko. Itxuraz, historian iragarritako lehen tren bidaia izan zen eta, beraz, lehen bidaia antolatua. Thomas Cookek (Melbourne, Ingalaterra, 1808, Leicester, 1892), behin, ia hamazortzi kilometro egin zituen oinez edari alkoholodunen aurkako bilera batera joateko, eta orduan bururatu zitzaion txangoa antolatzea. Ez dirudi lehen bidaia hark onura ekonomikorik ekarri zionik.

Horrek ez du esan nahi jarduera berritzaileari esker etorkizunean etekinik lortu ez zuenik. Burgesiari aisia-bidaia arin eta merkeak eskaintzeko negozioa zabaltu zuen berehala, beti ere trena baliatuta. 1851n 165.000 pertsona eraman zituen Londresko Erakusketa Unibertsalera eta, handik lau urtera, Leicesterretik Calais-erako txangoak antolatuta, kontinentera jauzi egin zuen bidaiariak Pariseko Erakusketara helarazteko.

1856an Europa Iparraldean barna-

ko bira antolatu zuen. 1868an Harwich bidean bidaiarien zirkulazioa ustiatzeko eskusiba lortu zuen eta, berehala, baita Brennero ko portuaren eta Brindisiren arteko bidearena ere. Bide hura, Frantziaren eta Prusiaren arteko gerran, Cooken turismo enpresarentzat soilik egon zen irekita. Hotelekin hitzartutako bonuak ere alkoholaren aurkako militante honek asmatu zituen, bezeroen ordainketa errazteko.

Cookek 1864an Italiara lehen txangoa antolatu zuenean, zera esan zuen *Blackwood's Magazine* aldizkariak: «Lotsarik gabeko gizon batek diru kopuru baten truk 40 edo 50 lagun Londrestik Napolira gidatzeko proiektua asmatu du. Haiek eraman, jatekoa eman eta dibertiarazteko konpromisoa bere gain hartzen du gizon horrek. Italiako hiriak mota horretako izakiz gainezka daude, zinez».


Egun Thomas Cook bidaia agentzia sasoi betean dago, hegazkin konpainia propioa eta guzti, eta munduko txoko ia guztiak «mota horretako izakiz gainezka daude».

Arrastoak

Neanderthal emakumeak endogamiaren aurka

NEANDERTHAL GIZAKIA talde txikitetan bizi zen eta endogamiak eragindako kalte genetikoak saihesteko emakumezkoak talde batetik bestera aldatu ohi ziren. Horixe ondorioztatu dute Asturiasko El Sidron kobazuloan (argazkian) aurkitutako arrastoak aztertu ondoren.

Lehenengoz, hamabi banakoren ADN mitokondrial sekuentziatzea lortu dute, eta amaren aldetiko hiru leinukoak zirela ikusi dute. Alegia, arrak leinu berekoak zirela eta emeak, aldiz, ez. Horrez gain, emakumeek haurrak hiru urtez behin izan ohi zituztela adierazten dute ikerketaren emaitzek. Bi datu berri horiek bat datoz egungo tribu ehiztari-biltzaileen ezaugarriekin.



EL COMERCIO

Dominique Bacho

«Guhaurek sozializatu behar ditugu geure ideiak»

Donaixti-Ibarre. 1954. Herri Taldeak mugimenduan engaiatu zen gaztetan, Euskal Batasuna alderdian ondoren. Uharte-Garazin bizi da. Kontularia da lanbidez. Seaskako diruzain izana. EH Bai-ko zerrendaburu da martxoko Departamendu bozetan, Garaziko kantonamenduan.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Gaizka Iroz



“Biziki arranguratuak gara. Barnealdean gero eta euskara gutxiago entzuten baita”.

Paueko Kontseilu Nagusia berrituko da martxoaren 20 eta 27ko bozetan. Ipar Euskal Herriko 21 kantonamenduetako 10etan kontseilari berriak hautatuko dituzte. Boz hauek sei urterako izan dira orain arte, eta hauek hiru urterako dira; azkenak gisa horretara. Frantziako Gobernuak Lurraldeen Erreforma Legea bideratu du. Aldaketak datoz Hexagonoko marko politikoan.

Frantziako Estatuaren instituzioen aldaketaz mintzatu gara solasal-

diaren abiaburuan Dominique Bacho hautagaiarekin: “Eskumene-tan aldaketa anitz izanen da, bereziki konpetentzia orokorra galduko dute departamenduek, erran nahi baita ez direla konpetentzia definituez baizik arduratzen ahalko. Departamendua-ren ehorzketa bat bezala dira bozka hauek”.

Batzuek alta, erreforma honen gibe-lean Frantziako deszentralizazio gisa-ko bat “ikusi” dute.

Ene ustez aldiz, zentralizazioa are handiagoa izanen da. Guk Euskal Herriko –eta barnealderako bereziki– botere ahultze bat bezala ikusten dugu. Konparazione, hautetsiak jende kopuruaren arabera hautatuak izanen direnez, barnealdeak –hiriko eta kostaldeko kantonamenduen aldean– hautetsi batzuk galduko dituzte. Hautetsiak gehiago izanen dira hirietako eremu popula-tuetan eta herriekilako hurbiltasuna galduko dute.

“Abertzaleok elkar lagundu behar dugu”

“Duela 30 urte jende gazte anitz bildu ginen Herri Taldeak mugimenduan. Abertzaleetasunaren berpiztea izan zen nolazpait. Enbata fenomeno politikoaren ondorengo belaunaldia izan ginen. Taldeak herriak biltzen ziren. Mugimenduak Baigorri ukan zuen bihotza. Garai inportanteak izan ziren: ikastolen eta laborantzaren aldeko manifestazio gogorrak burutu ziren. Turismoaren aurkako borroka azkartu zen. IK agertu zen. Gero sortu ziren Euskal Batasuna, EMA, Abertzaleen Batasuna, Eusko Alkartasuna, Batasuna...”

Garai haiez geroztik onarpen bat erdietsi du abertzaleetasunak. Orduan abertzale izatea zaila zen herrietan. “Abertzalea” eta “terrorista” usu parekatuak. Egun aldiz, normaltasun osoz hartzen gaituzte herritarrek. Beste indar politikoek ere onartuak gara. Jendeak badaki zer garen, ez du *a priori* abertzalea-

suna errefusatzeko. Hori irabazi dugu. Hori inportantea da, baina inportantea da ere abertzaletasuna gauzatu dadin bozketan. Orain, bozetan jende ‘normalak’ gara abertzaleok. Eta bertze alderdiek abertzaleon ideiak beren gain hartu dituzte. Hori ontsa da, baina datozen urteetan, guhaurek sozializatu behar ditugu geure ideiak: gure herrian euskaraz bizitzeko eta erabakitzeko eskubidea irabazi behar dugu instituzioetan.

EH Baiko hautagaia naiz Garaziko kantonamenduan. Desberdintasunak dituzten alderdiek osatua da (AB, Batasuna eta EA). Alta, une honetan batasunean aritzeko manera hedatzen ari da Euskal Herrian, elkar lagundu behar dugu. Aurkariak gogor egiten digute, eta guk aurre egin behar diegu, gure ikusmoldeak argiki plazaratuz. Herritarrei beste garai batean sartzen ari garela ohartarazi behar diegu”.



2014tik aitzina Lurralde elkargoen eta departamenduaren kontseilariak hautatuko dira.

Hautetsi kopuru bera izanen da lurraldean eta departamenduan. Baina ez da garbi ikusten finantzak nola kudeatuko diren. Esaterako, profesionalen tasa kenduko dute eta Estatuak diru bat eman du horren ordainez. Estatuak emandako finantzarekin kudeatu beharko da. Kompetentzia gauza bat da eta ahalmenen ukatea beste bat. Guretzat ahalme-

nak ukatea kudeaketan eragin ahal izatea da. Adibidez, maila sozialean orientazio ezberdinak ematen ahal dituzu fiskalitatea zure esku baldin baduzu. Irudiz, lege berri horrekin Estatuak fiskalitatea are gehiago kontrolatuko du. Finantza arras giltzatua izanen du, Estatuak bere gain hartuko du ere orain arte ziren kudeaketa txikiak. Guretzat, argi eta garbi, erreformak zentralizazio handiagoa ekarriko du. Gu erreformaren arrunt kontra gaude. Parisko boterek tokiko

erakundeek orain arte izandako kompetentzia zenbait apalaraziko dute.

Beste berezitasun bat ere bada: orain arte bozen %10 behar zen bigarren itzulira pasatzeko, orain %12,5.

Baiki, boz ematen ahal dutenen %12,5 behar da bigarren itzulira pasatzeko. Abstentzioa kontuan harturik, bozen %16-17 beharrezkoa izan daiteke. Neurria alderdi handien alde hartua izan da, alderdi tipiak kanpo uzteko.

Bi zerrenda abertzale daude oro har: EH Bai eta EAJ-PNB. Zergatik ez zarete batera aurkeztzen?

EH Bai koalizioa, EA, AB eta Batasunak osatua da. PNBk ez du koalizioan sartu nahi izan. Berari galde egin behar zaio zergatik. Irudiz, Akitania erregio bozketan emaitza baikorrak egin zituzten eta boz hauetan ere zenbat bilduko duten jakin nahi dute. Emaitza hura egotera berezi batean eman zen nolanahi ere. Gaineratiko abertzaleen taktika ez zen ontsa ulertua izan eta anitzek PNBren alde bozkatu zuten. Hala, ber, PNBk liberalismoa onartzen du, gu ezkerrean gaude. Arlo sozialean ezberdintasun handiak ditugu.

Garaziko kantonamenduan EH Baik arbitroaren rola joka lezake, naski.

Garazin gerta daiteke ezkerrean eta eskuinaren artean arbitroa izatea, baina hori ez da laketsagarria. Kasu horretan joko politikoetan sartzera behartuko gaituzte nolabait, beste alderdien interesen arabera moldatzera “bortxatu”. Emaitza onak baldin badira lehen itzulian, egokiena guhaur bigarren itzulian egotea litzateke. Barnealdean aukera onenak ditugu zerbaiten erdiesteko. Iholdin konparazio-ne. Baina, Daniel Olzomendik aukera izanik ere, zaila izanen da. Azkeneko bozetan oraingo hautesia, Jean-Louis Caset, lehen itzulian hautatua izan zen, bozen %60 bilduz. Noski, leku bakoitzean hautua egin beharko da, beste hautagaien zintzotasunaren arabera.

Zein dira EH Bairen lema edota helburua kanpainen, Garazin eta oro har?

EH Bairen lema da “Euskal Herria, gure indarra. Lan, bizi eta erabaki

Euskal Herrian”. Helburu nagusienetarik da euskal instituzioa erdies-
tea. Garaziko problematika gaitzena
lurraren eta enpleguaren inguruan
ematen da. Bestela badirudi ere,
Garazin lur eskasa dago, lurraren

**“Garazin emaitza onak
baldin badira lehen itzulian,
egokiena guhaur bigarren
itzulian egotea litzateke”**

kudeaketa biziki inportantea da ere
Garazin. Enpresa jinarazteko arazo-
ak daude, enpresendako lurrik ez
badago, beste norabait joanen dira.
Herri Elkargoetan lurra xerkatzen ari
dira. Etxebizitzaren problematika ere
handia da. Euskal Herrian eta Gara-
zin ere lurrak biziki garesti saltzen
dira. Donibane ondoko lotizamendu
[orubeak] batzuen metro karratua
100 eurotan dago. Gazteek zail dute
horren gainean etxe baten egitea.
Enplegua sortzea zaila da, berau sor-
tzeke laguntzak urriak baitira. Gero
eta jende zahar gehiago dago, horien
beharrei erantzuteko zahar etxeen
eta ospitaleen beharra dago, baina
gazteak hemen egon daitezen hauei
buruz pentsatu behar da ere bai.

**“Bestela badirudi ere,
Garazin lur eskasa dago,
lurraren kudeaketa biziki
inportantea da ere hemen”**

Frantxua Maitia (PS) da kontseilaria.
Zer bilan egiten duzue bere lanaz?

Garazin ez dugu diferentzia handia
atzeman kontseilari denetik. Mai-
tiak berak dioenez, abantaila da
instituzio anitzetan egotea: Depar-
tamendu eta Erregio kontseiluetan,
bera sosa dagoen erakundeetan
dago. Hautetsiek diru publikoa
kudeatzen dute, baina beren zeregi-
na diru banaketara mugatzea damu-
garria da. Hautetsiek elkar laguntze-
ko lan egin behar lukete, politika
bateratua garatzeko. Dirurik ekarri
gabe ere, proiektuen arteko kohe-
rentzia erakutsi beharko lukete.
Hautetsien lana diruaren kudeake-
tara mugatzea politikaren gaitz
larrienetarik bat da.

Kontseilu Nagusiak Nafarroan
Gaindiko 2X2 autobidea ber-
tan behera utzi zuen 2007an.
Gai horren inguruko lehiek
eragin dute bozetan?

Eragin dezakete. Proiektuaren
alde aritu zirenek erantzun
ezezkorra ukaten ahal dute.
Jean-Jacques Lasserre eta
Barthelemy Aguerre izan ziren
2X2 proiektuaren sustatzaileak,
horiak sostengatzen dute
Jean-Marie Mailharro hauta-
gaia (Forces 64). Mobilizazio
azkarrak izan ziren Garazi,
Oztibarre eta Amikuze eskual-
deetan, eta horrek zenbait
zauri utzi zituen. Nolanahi ere,
Maitia kontra agertu zen,
alderdi sozialista horren argi
agertu ez bazen ere.

11.300 ibilgailu iragaten dira
egunero Donibane Garaziren
erditik. Nola konpondu arazoa?

Gu saihesbidea egitearen alde-
koak gara. Pentsa, arazo hori
1956an aipatua izan zen jada.
Geroztik boterean izan dire-
nek ez dute deusik egin.
Beharbada, Donibaneko mer-
katariak ez zutelako desbidera-
tze hori obratzea nahi. Artean,
etxeak egiten utzi dituzte, eta
orain zailtasun gehiago dago
bidea pasarazteko. Desbidera-
tzeak halere neurrikoa izan
behar du. Guk ez dugu auto-
bidearen proiektuaren urrats
bide bat eman nahi. Guk des-
bideratzearen alde gara eta
hautetsi ia denak ere bai. Gero,
bada arazo bat, kilometro bat
eta erdian ez da oraino finka-
tua bidea nondik iraganen den.
Guk erran dugu ez garela
kapable horri buruzko jarrera
finko bat hartzeko, teknikoki
elementu guztiak ez ditugula-
ko. Azterketa guztiak egin
behar dira, proiektua abiatu
den lekutik joanen ote den
ikusteko. Oro har, guk iparral-
detik joatea nahi dugu, Izpura
eta Donibane artean. Bidea
ontsa integratu behar da bai
ingurumenean eta bai auzoe-
tan. Harrabotsa kentzeko neu-
rriak hartu behar dira ez dadin
auzoetan gogaikarria izan.



AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia (Gipuzkoa)

Tel: 943 44 00 99

aquariumss@aquariumss.com
www.aquariumss.com

 AQUARIUM



"Frantxua Maitiak ez du bete hitzeman zuena. Gainera, gazteen gain ezarri du Gaztetxea egin ez izana".

2x2 autobidearen aldekoek Nafarroan gairikiko komunikazioa sustatzeko zela zioten.

Nafarroa Garaiari buruz nahiz Hegoaldeari buruz oro har, gauza bat da bidea egitea eta beste bat da loturak ezartzea, loturak egin behar baitira. Bidea azaleko gauza bat da funtsean. Loturak, eman dezagun, hemengo eta hango komunitateen artean benetako kontratuak egitea da, egiazko harremanak sustatzeko. Orain ez dago harremanik hango

eta hemengo instituzioen artean, ez Nafarroa Garaia-aren eta Nafarroa Beherearen artean. Guk zerbaiten egiteko Paueko edo Bordeleko instituzio-etatik pasa behar dugu. Geure instituzioaren behar handia daukagu. Oraingo instituzioek ez dituzte egiazko harremanak bultzatzen. Arnegi eta Luzaide artean muga handia da oraino.

Gaztetxe bat eskatzen dute Garaziko gazteek. Zertan da afera?

Maitiak ez du bete hitzeman zuena. Gainera, gazteen gain ezarri du Gaztetxea egin ez izana. Gazteak alta, antolatuak dira, elkarrekin osatua dute baina ez dute atzematen kokatzeko eraikin bat. Gazteak borda batean egin dute Gaztetxe gisako bat. Gaztetxea kantonamendu guztirako proiektua da, ez da ostatu

bat, informazio eta eztabaidarako lekua da, bizigune bat. Maitia ez da hain ziur arduradun bakarra, hor daude ere Herriko Etxeak. Denek behar dute indar egin eta gazteen eskaera beren gain hartu. Alabaina horrelako gauzetan ardurak banatzen dira.

Laborantza Ganbara bertan izanik, gai garrantzizkoa da laborantza Garazin.

Laborantza gure ekonomiaren iturri handiena da, Garaziko bizkar

hezurra. Bere inguruan enplegu asko mugitzen dira, kooperatibak, saltokiak eta enplegu asko zeharka. Euskal Herriko Laborantza Ganbararen filosofia hain zuzen, laborantza tipiarene eta ertainaren sustapena da, ahal bezainbat etxalde bizirik egon dadin eta etxaldeetan gazteak planta daitezten. Horiek biziarazten baitituzte herriak, baita kalitatezko mozkinak bermatzen ere. Ez bakarrik kantitateari begira, kalitateari dagokionez ere bai. Gurea mendiko laborantza da, laborantza intentsibotik urrun ari dena. Kalitatea sustatzea da atera-bidea. Sormarken inportantzia handia da, kalitatea aitzinetik ezartzen baita.

Euskara ere kanpainako gai funtsezkoa izanen da. Garazin ere bai!

Bai, biziki arranguratuak gara. Barnealdean gero eta euskara gutxiago entzuten baita. Garazin ere frantses gehiago entzuten duzu euskara baino. Kanpainan hautagai denek euskararen alde daudela erraten dute, baina erabilpena gutxituz doa, barnealdean ere behera doa. Kostaldean arrunt beherean dago, baina gazteek ikasten dute, gutxi baina gisa batez entzuten da. Garazin gazteen artean beheiti ari da. Lan gaitza dago egiteko. Egia da ere, ikastoletan gero eta haur gehiago ari dela, eta guraso gazte zenbaitek, beraiek euskara galdu badute ere, kontzientzia hartu dute eta haurrak ikastoletan eman dituzte. Euskararen aldeko atxikimendu frogak da hori, jarrera baikorra geroari buruz, baina barnealdean ere euskararen egoera oso larria da. ■



Atxaspi Hotela

Bittiria 24
Lesaka (Nafarroa)
T 948 637 536

hotela@atxaspi.com
www.atxaspi.com

Martxoak 8 marzo

**Día Internacional de las Mujeres
Emakumeen Nazioarteko Eguna**

años de reivindicaciones feministas
urte aldarrikapen feministekin
/100 1911 - 2011

Martxoak 8 marzo

Proiektzioa / Proyección
Kartel feministak

Egun osoan zehar / Durante todo el día
AlhóndigaBilbao Kulturaren atarian / Atrio de las culturas

Manifestaldia / Manifestación

20.00
Antolatzailea / Organiza. Mugimendu Feminista

Martxoak 9 marzo

Dokumentalaren aurkezpena / Presentación del documental
"Vindicación". Ibone Bengoetxea - Susana Koska

Mahai ingurua / Mesa redonda

"Aldarrikapen feministetatik berdintasun politiketara"
"Desde las reivindicaciones feministas a las políticas de igualdad"

Nekane Alonso - Izaskun Moyua - Marta Dolado
19.00 Biblioteca de Bidebarrieta Liburutegia

Antolatzaileak / Organizan



Arrantza

Biomasa bikoiztu egin da eta antxoaren kanpaina ona dator

Udaberri honetan antxoaren biomasa 100.000 tonara iritsiko da, iragan urteko bikoitza, AZTI-Tecnalia arrantzari buruzko euskal ikerketa zentroak egindako azken azterketaren emaitzen arabera. Azterketa horren berri eman du Sustrai aldizkariaren azken aleak. Hala, Kantauri itsasoan antxoaren kanpaina bikaina aurreikusten da.

DANIEL UDALAITZ

ANTXOA GEHIEGI USTIATZEAK, azken urteotan Bizkaiko Golkoan arrain gozo honen arrantzan geldialdia eragin du. Hainbat urtetan, gure arrantzaleei nahiz Kantauri kostaldeko gainerakoei debekualdiak eragin die. Iaz debekualdia bertan behera utzi eta arrantzaldia ireki zenean, emaitzak bikainak izan ziren. Antxoaren arrantzaldiaren atarian gaude —kanpainaren hasiera data ofiziala martxoaren lehena

da—, eta aurreikuspenak ezin hobeak dira. AZTI-Tecnalia arrantzari buruzko ikerketak burutzen dituen euskal guneak burututako azken Juvena azterketaren arabera, antxoaren biomasa 100.000 tonara irits daiteke datorren maiatzean bertan. Kopuru horretara iritsiz gero, joan den udaberriko populazioa bikoiztuko da. Beti ere AZTI-Tecnaliaren azterketaren emaitzen arabera, segurtasun muga gisa eza-

rritako 33.000 tonak erraz gainditu dira eta, hala, azken urteotako goranzko joera baieztatzen ari da. Horregatik, litekeena da aurten baimendutako harrapatze kopuruak gora egitea eta, beraz, Europako Batzordeak iaz ezarritako 5.400 tonako mugaren oso gainetik egotea aurtengo arrantzaldia.

Ikerketaren emaitzak oso positiboak izan arren, AZTI-Tecnaliako adituek, hala nola Rogelio Pozok,



ARGAZKI PRESS / JUAN CARLOS RUIZ

INEMeko bulegoak Lanbideren esku geratu dira transferentziaren ondorioz.

Antxoa harrapatzeko muga handitu dezake Europako Batzordeak

Bizkaiko Golkoan eta Kantauri itsasoan antxoaren arrantzaren debekualdia bost urtez indarrean egon eta gero, 2010ean, Europako Batzordeak antxoa harrapatzeko muga ezarri zuen, urtez urte egokituko dena eta uneoro biomasa tasak errespetatuko dituen. Horrela, gure itsasoan antxoaren arrantza bost urtez debekatzeko erabakia eragin zuen gehiegizko ustiapena saihestu nahi da. 2010eko arrantzaldian gure arrantzaleei eta Kantauri kostaldeko beste guztiei 5.400 tonako muga ezarri zitzaion. 2011n kopuru hori bikoiztu liteke, baina Europako Batzordearen erabakiaren zain egon beharko dugu hori ziurtatzeko.

Iaz, euskal kostaldeko nahiz Kantauri kostalde osoko kofradiek oro har leialki errespetatu ziren hainbat akordio sinatu zituzten. Akordio horietako

batzuek ontzi bakoitzak harrapa zezakeen kopurua zehazten zuten. Hala, 15 langileko ontzi bakoitzak eguneko 5.000 kilo harrapa zitzakeen gehienez. Hala, harrapa zitekeen antxoaren batez besteko neurria adostu zuten; txikienak harrapatzeari uko egin zioten eta helduak harrapatzea erabaki zuten (kiloko 38-50 unitate).

Antxoaren arrantzaldia urteko garrantzitsuen da euskal arrantzaleentzat. Hortaz, euskal herriar askori eragiten dien krisialdi orokor betean, pozik egongo dira aurtengo aurreikuspen positiboari esker. Euskal flota 290 ontzik eta 3.000 arrantzalek baino gehiagok osatzen dute. Eta arrantza produktuen eraldaketa industria, berriz, 87 enpresek eta 2.000 pertsona inguruk osatzen dute.

zuhur jokatu nahi izan dute. Zergatik? Pozok dioenez, espeziea oso gorabeheratsua da, hainbat elementuk asko eragiten baitiote. Horregatik, arrain horren biziraupena bermatzeko, etengabe burutzen dira horrelako ikerketak.

Arrantza jarduera sendotzea

AZTI-Tecnaliak jakinarazitako datuok berri onak dira arrantza-leentzat nahiz elikagai eta kontserba industriarentzat. Gure itsasoko biomasa joera horri eusten badio, Euskal Herrian, Kantauri kostaldean eta Bizkaiko Golko osoan antxoaren arrantza jarduera sendotu ahal izango da.

Lehen Juvena azterketa 2003an burutu zen. Ordutik hona, antxoa gazteen biomasa datuak ez dira sekula gaur egungo mailara iritsi. Horixe dio Eusko Jaurlaritzak eta EAEko Aldundiek argitaratzen

duten *Sustrai* lauhilekoaren 94. zenbakiak. Hala, joan den urtean jasotako datuekin alderatuz gero, Juvenaren datuak hirukoiztu egin dira; neurgailu zientifikoa iaz 178.000 unitatera iritsi zen eta aurrean, aldiz, kopurua 599.000 unitatekoa da. Horrek esan nahi 2010eko maiatzeko 50.000 tonak 100.000 tona inguru izango direla 2011ko maiatzean.

Horrez gain, AZTI-Tecnaliaren txostenak jaso duenez, hedadura esparrua orain arte aztertutako zabalena da, aurrez, 2009an, topatutako hedadura baino %60 handiagoa. Antxoa gazteen batez besteko tamaina (8,3 cm) saileko handiengakoa da.

Biomane eta Juvenak antxoaren populazioa aztertu dute

AZTI-Tecnaliak hainbat ekintza burutzen ditu antxoen populazioa aztertzeko eta horien artean Bio-

man eta Juvena nabarmen diren. Bioman kanpaina, eguneko arraba ekoizpenaren bidez, antxoaren ugalketa biomasa (tonatan) kalkulatzeko datua, eta oinarriko elementua da Itsasoa Aztertzeko Nazioarteko Kontseiluak (CIEM) burutzen duen antxoari buruzko nazioarteko ebaluaketan.

Juvena kanpainatan antxoa gazteen ebaluazio akustikoa egiten da (2003-2010 saila), hurrengo urtean antxoa helduen erreklutamendua zein izango den aurreikusi eta harrapa daitezkeen antxoa kopuru onargarriak (TAC analitikoak) aurrez gomendatu ahal izateko. Ikerketen helburua da antxoa gazteen kopurua eta banaketa espaziala zehaztea, egoera aztertzea, biziraupenean eragin dezaketen ingurune faktoreak ikertzea eta, hurrengo urteko "1 adineko" antxoa kopurua alderatuta, erreklutamendu tasa lortzea. ■

SOLOZABAL
Eskura ezazu teorikoa 5 egunetan
edozein gidabaimenerako

■ IKASTARO INTENTSIBOAK
■ CAP IKASTAROAK
■ ADR IKASTAROAK
■ GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

www.solozabalautoeskolak.es

MARCOS
okindegia

**Benetako
aintzinako ogia**

☎ 943 450 966

Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

¿A qué hora me lo
enviáis?

Zer ordutan
bidaltzen bidaliko
didazue?

Itzulpen eta zuzenketa zerbitzu profesionala
GAZTELANIA | EUSKARA | INGELESA | FRANTSESA | ALEMANA

11itzulpen
www.11itzulpen.com

Soziolinguistika

Jakintza tantak kontzientzian eragiteko

Soziolinguistika Klusterrak IV. jardunaldietan soziolinguistika bera hartu zuen ardatz. Nola hedatu soziolinguistika ezagutzak irakasle, teknikari eta euskalgintzako eragileen artean? Nola lortu ezagutza horren bidez ikasleen hizkuntza jarreretan eragitea?

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Argazkia: Jagoba Manterola/A.P



Ezkerretik eskuinera, Paula Kasares, Iñaki Martínez de Luna, Pablo Suberbiola moderatzailea eta Mikel Zalbide.

DONOSTIAN, otsailaren 18an, soziolinguistikari hainbat angelutatik heldu zitzaion. Horretarako zeuden irakasleak, teorizatzaileak eta blogariak, besteak beste.

Juan Carlos Etxegoien *Xamar* irakasleen irakasle da, nahiz eta urte luzez haur-gazteen irakasle izan den. Soziolinguistikan interes berezirik ez duela adierazi zuen, bai ordea hizkuntza gatazkan, “gure bizitza baita”. Nola hurbildu soziolinguistika jendearengana? galdetu zion Belen Uranga Klusterreko kideak: “Hizkuntza komunitatearen zentzua elikatuz, herriaren historia kontatuz, euskararen atzean dagoen mundu osoa azalduz”. Haurrak lurrari nola lotu adibidea jarri zuen Xamarrek. Iruñako eskolako umei galdetzen zien zein auzotakoak ziren eta euskarari tiraka azaltzen zien zer esan nahi duen Arrosadiak eta Iturramak,

“erdaldunek ezin dute hori ulertu” esaten zien gaztetxoek.

Diglosiaz?

Jardunaldien antolatzaileek gutxitan ikusi dugun formatua probatu zuten diglosia terminoaz hausnarketa egiteko. Mikel Zalbide euskaltzainak diglosia kontzeptuaz teorizatu eta Iñaki Martínez de Luna soziologoak eta Paula Kasares hizkuntzalariak erantzun egin zioten. Lan egiteko moldea egokia iruditu zitzaion entzule askori, baina gai hori gogoetagai izateaz zalantza ugari zuen jendeak. Alegia, merezi al du ikuspegi teorikoa lantzen hasita diglosia moduko kontzeptuaz hainbeste atzera-aurrera teoriko egiteak? Zalbidek aditzera eman nahi izan zuen, diglosia terminoak sortu zenetik hona adiera asko hartu dituela, eta gaur egun gure

artean ere, esanahi askorekin erabiltzen dela, “trenari abioi deitzen diogu eta abioiari tren”. Kasaresek esan zuen ez dela termino hori erabili zalea, ez delako baliagarria gure egoera azaltzeko. Gizartea dikotomia bidez agertzeko joerari izkin egitearen aldeko agertu zen Kasares, hau da, informala/formala, euskalduna/erdalduna moduko bikoteak utzi eta kontzeptu berriak asmatzea proposatu zuen. Martínez de Lunak diglosia termino polise-mikoa esanahi bakarrera zergatik ekarri behar den galdetu zuen. Beste galdera bat ere egin zuen: “Euskararen egoeraz hitz egiteko balio ez dugun terminoaz hitz egitea ez ote da alferrikako ahalegina?”. Idatzietan diglosia hitza erabiltzerakoan, eman nahi zaion adiera irakurleari esatea proposatu zuen, esate baterako oin oharretan.

Deshazkundera ikasgelan

Jordi Solé i Camardons soziolinguista katalana da eta irakaslea ere bai. Jardunaldietan egin zuen hitzaldiak ondoko izenburua zeukan: *Imaginació i educació sociolingüística a l'ensenyament*. Irakaskuntzan irakasleak eta ikasleak soziolinguistikara gerturatzeari hitz egin zuen, betiere kontuan hartuz soziolinguistikak errealitatea eraldatzeko beharko lukeela izan. Lluís Vicent Aracil soziolinguistarengandik ikasitakoak aipatu zituen hasieran. Hark gertaerak jasan edo ulertu egiten direla omen zioen, hau da, jende baten ustez gauzak gertatu egiten dira eta beste batzuen ustez gertaeren protagonista da gizabanakoa. Hari horri tiraka zioen Solék, ikasleei erakutsi behar zaiela, nola gaztela-

**Kontuan hartuta
elebitasunak ez digula
balio, hizkuntza handiak
erabili beharrean
ikasleen "hizkuntza
motxila" baliatzea
proposatu zuen Solék**

niak katalanaren tokia hartu duen. Katalunian etorkinak eskolaratzekoan gertatzen zaiena azaldu zuen ondoren. Harrera gelak daude atzeritarrentzat eta katalana mahai gainean dago. Ikasgela arruntera doazenean ordea, ikasleek zuzenean gaztelan egiten diete. Irakasle desleialak ere gogoan izan zituen Solék: Ikasleekin katalanez egiteko ohitura hartu eta gero, enpatia aurkitu asmoz gaztelaniara igaro direnak.

Solék boladan dagoen kontzeptua, deshazkundera, jarri zuen mahai gainean. Kontuan hartuta elebitasunak ez digula balio, hizkuntza handiak erabili beharrean

Hausnartu Sariak

Soziolinguistika Klusterrak jardunaldiak baliatu zituen III. Euskal Soziolinguistika Sarien irabazleen lanak aurkezteko.

1. go saria: "Gazteak, musika eta euskara", Luis Azpiazu.

Arrasateko (Gipuzkoa) Arizmendi Ikastolako 14-17 urte arteko gazteak elkarrizketatu zituen Azpiazu saridunak. Gazteok euskal musikaz zuten irudipena aztertu nahi izan du. Euskal musika helduekin eta abertzaletasunarekin lotzen dute eta parrandarekin lotzen dutenean trikitia, erromeria eta panderoa moduko hitzak datozkie burura. Lagin txikiarekin aritu denez, Azpiazu ez du uste ondorio sendorik ateratzerik duenik, baina bere ustez euskal musika eta tradizioa estu lotzen dituzte. Arrasateko talde gehienek gaztelan abesten dutela adierazi dute

elkarrizketatuek. Erreferente gutxi, beraz.

2. saria: "Sugea dantzan: She's in fashion-etik Bilbao euskarazera", Galder Unzu.

Espazio publikoaren diseinua eta kudeaketa nolakoa, jendearen erabilera mota eta komunikatzeko aukeratuko duen modua halakoa. Bilboko hainbat espazio ikertu ditu deustuarrak, eta eserlekurik eta ia euskararik gabeko La Alhóndiga eraikinaren adibidea kontatu zuen.

3. saria: "Euskal soziolinguistika aplikatua", Patxi Juaristi.

Euskal soziolinguistika aplikatuan 70eko hamarkadatik erabili diren metodo eta tekniken bilakaera aztertu du Juaristik. Besteak beste, ikerketa deskriptiboak baino esplikatzaileak gehiago egitea proposatu du.

ikasleen "hizkuntza motxila" baliatzea proposatu zuen. Adibidez, ingelesa alboratu eta portugesa, italiera... dakizkitenek elkar ulertzeko hizkuntza horiek erabiltzea aldarrikatu zuen. Seguru asko hainbat jatorritako haurrak dituzten Kataluniako eskolak izango ditu buruan hizkuntza deshazkunderaz ari denean.

Kultura euskarari atxiki

Jardunaldiak *Lanparak eta ispiluak soziolinguistika zabaltzeko* izenburupeko mahai-inguruarekin amaitu ziren. Soziolinguistika jendarteratzeko hiru hartzaile mota aipatu ziren: euskalgintza (profesionalak), euskaltzaleak eta gizartea. Julen Arexolaleibak (Mondragon Unibertsitatea) hiru eginkizun zehaztu zituen: sakontasuna lantzea, dibul-

gazioa egitea eta adibideen gramatika izatea. Azken horren adibide jarri zuen Euskal Kulturaren Transmisioa graduondokoa. Laburrean esanda, plano teorikoa ekin tzaren bidez harapatzea proposatu zuen. Hariari tiraka, Txerra Rodriguezek (Emun) Nova Cançó jarri zuen dibulgazioaren adibide. Soziolinguistikaren hedapen zabalerako liburu formatuaren egokitasuna zalantzan jarri zuen hainbatek, tartean AEK-ko irakasle eta blogari Benito Fizek. Laugarren mahaikideak, Jacqueline Ullak (Massachusetts Amherst-eko Unibertsitatea), hizkuntza kudeaketan maila teorikoan ari direnak eta eguneroko jardunean dihardutenak elkartu izana nabarmendu zuen. Horrelakorik ez omen da gertatzen AEBetan. ■

Babeslea: Bilboko Udala



Topagunearen Kongresua

OTSAILAREN 26AN, Bilbon elkartu ziren Topaguneak biltzen dituen 96 euskara elkarteetako ordezkariak. XXI. mendeko euskaldunon elkarte mugimenduaren oinarriparak txostena bozkatzeko elkartu ziren 200 bat kide. Topaguneak 2010eko urtarrian hasi zuen Durangon orain Euskaldunon Elkarte Mugimendua izena hartu duen federazioaren lan ildoak hausnartzeko prozesua. Hamabost aditu eta arituk osatutako batzordeak egin du oinarrizko ponentzia proposamena eta hainbat hilabetez elkarteetako 250 lagun aritu dira gogoetan. Urtebeteko hausnarketaren ondoren hartu den erabaki nagusia izan da euskaraz

bizitzeko haututik eragiletzan sakontzeko bideari heltzea. Karment Irizar Topaguneko lehendakariak azpimarratu zuenez, batez ere gizartean eta politikan eragitea izango da Topagunearen lan ildoak. Kongresuan, txostenaz hainbat ikuspegi diferente agertu eta gero, bozketa egin zen. Aldeko 73 boto jaso zituen, 11 zuri izan ziren eta 3 kontrako boto.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Gasteiz 76-Derry 72

Aste honetan, martxoaren 3an, Espainiako Poliziak Gasteizko San Frantzisko parrokian langileen batzarraren kontra egindakoan eragindako masakrearen 35. urteurrena da. Fraga Iribarne eta Martin Villak gidatu zuten politikoki gertaera hura. Bost langile hil ziren eta hainbat zauritu. Hogeita hamabost urte geroago, ardura penalek eta politikoek depuratu gabe segitzen dute eta ministro frankista izandako Fragak politikan jarraitzen du, PPren presidente eta senadore. Irlandako Derryn ere, antzeko zerbait pasa zen 1972ko urtarrilaren 30ean: hamalau herritar ejertzito britainiarraren balek jota erori ziren. Unibertsalki Bloody Sunday (Igande Odoltsua) moduan ezagutzen duguna izan zen.

Urteurren honetan, Martxoaren 3ko Biktimen Elkarteak bultzatuta, jardunaldi bateratua antolatu dute (Gasteiz 76 – Derry 72), Espainiako eta Britainia Handiko indar armatuen basakeriak sortutako biktimak errekonozitzeko. Irlandako delegazio bat Gasteizen izango da. Egia, ordaina eta justizia lortzeko, biktimek egiten duten esfortzua errekonozitu nahi da, bai eta Irlanda eta Euskal Herriaren arteko elkartasuna azaldu ere. Horregatik, Irlandako adibideak Gasteizko aurtengo ekitaldiak markatuko ditu: eskubide zibil eta politikoak aldarrikatuko dituzte, eta baita biktimek gatazken konponketan duten papera ere. Egiaren Batzorde bat eskatzen dute, “genozida kriminalak” epaitzea ahalbidetu eta Estatuko segurtasun indarrak erabiliz azken hamarkadatan egon den isiltasun eta zigorgabetasunarekin amaituko duena. Francoren gobernu-ko Fraga Iribarne eta Martin Villa oraindik bizirik egonik, gutxienez euren arduraren onartzeko ordua da.

Juan Mari Arregi

Irrati lizentzietan euskara meritu baino ez

IKUS-ENTZUNEZKO komunikazioko dekretuak dioenez, Eusko Jaurlaritzak FMko irrati lizentzien hurrengo lehiaketan, ez du euskara betebehargar gisa hartuko, meritutzat baizik. Aurreko legegintzaldian EAJk eta EAK programazioaren %20 euskaraz emititzea proposatu zuten, baina Kultura Sailak ez du derrigortuko. PPK nahi zuen bezala, hizkuntz portzentajeak desagertu egingo dira, tokiko telebisten lizentzien kasuan gertatzen den moduan.

Hautzaindegietako euskara zerbitzuak koordinatu nahian

LEHA izeneko egitasmoa jarri dute abian Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Euskararen Erakunde Publikoak, Familien Laguntza Kutxak (CAF), Laborari familien Laguntza Kutxak (MSA) eta Kontseilu Nagusiak bat egin dute hautzaindegietako euskara zerbitzuen eskaintza arautzeko. EEPk egindako ikerketa baten arabera zentroen artean antolaketa handirik ez zegoen eta gurasoek ez zituzten argi euskarazko eskaintzen nondik norakoak.

Udaltop, apirilaren 7an eta 8an

UDALETAKO euskara zerbitzuen III. topaketak Lasarte-Orian izango dira eta dagoeneko matrikulazio epea zabalik dago. Aurtengo topaketen izenburua ondokoa da: *Zer da euskara euskaraz ez dakitenentzat? Haiek euskarara hurbiltzeko, zer eta nola egin daiteke udaletatik?* Besteak beste, Trebiñuko Udaletik Andoni Llosak hitz egingo du eta mahai-inguruan hartuko dute parte Xabier Azanza (Euskarabidea), Bernadette Soule (EEP) eta Lurdes Auzmendik (HPSko sailburuordea).

EPPK eta Gernikako Ituna elkarri keinuka

ESPAINIAKO fiskaltzak eta Estatuaren abokatuak aste honen bukaeran edo hurrengoaren hasieran jarriko dituzte Sortu legeztatzearen aurkako helegiteak Auzitegi Gorenean. Eta orduan hasiko dira eztabaida juridiko-politikoan Goreneko 61. Salako epaileak. Legeei buruz ari diren neurrian argudio juridikoak ere erabiliko dituzte, zalantza barik, baina inozoenak ere badaki funtsean erabaki politikoa dagoela atzean. Funtsean, dagoeneko ezagun da ezker abertzalea berandu baino lehen legezkota izango dela —hala diotenen itogin ofiziala etengabea da— eta orain kontua da ea noiz komeni den urrats hori gauzatzea.

Gorenak juridikoki oso gaitza izango du Sortu legez kanpo uztea, nagusiki biolentzia arbuizatzeaz gain, ETaren biolentzia ere espreski aipatzen delako. Hor ez dago heldu lekuri, legearen interpretazioa —batzuk nahi duten bezala— iraganaren gaitzespena eramatez ez bada bederen. ETaren aginduetara aritzea ere erabili daiteke, baina ez da oso sinesgarria erakunde armatuak beste eragile baten bidez bere jarduna arbuizatzea.

Sortu lehenago legez kanpo utzitako beste erakunderen batekiko jarraipena den edo ez izango bide da auziaren iltzea. Segurtasun indarren bidez horretan saiaturiko da fiskaltza, baina orain arte publikora agertutako frogak baino sendoagoak beharko ditu barregarri ez gertatzeko. Are gehiago Egunkaria auzian eta Udalbiltzarenean segurtasun indarren “froga perizialek” Auzitegi Nazionalaren halako egurra jaso ondoren.

Baina non dago iraganarekiko apurketaren marra, berau ikusi



ARGAZKI PRESS / GARI GARAIALDE

gura ez duenarentzat, kontuan hartuta Sortu legez kanpoko ezker abertzalearen adierazpen gaurkotua dela? Finantzazioari, Euskaldunako ekitaldian izandako pertsonen, laguntzaileei, ikurrei... zeri egingo ote diote jaramon epaileek? Denak adierazten du argudio juridikoekin oso gaitza izango dela Gorenak Sortu legez kanpo uztea, eta hala balitz, sinestezina litzateke Auzitegi Konstituzionalak hori baieztatzea.

Denbora laburrean ikusi ahal izango dugu, Auzitegi Goreneko lehendakari Carlos Dívarrek adierazi duen moduan, Sorturen egoera hauteskunde aurretik erabakiko baita. Kontua da apirilaren 18an ixten dela zerrendak aurkezteko epea eta, Sortu hauteskundeetan egoteko aukera bermatu nahi bada, ordurako legezkota den edo ez erabaki beharko dela.

ETA-K berak azken agirian airean utzitako zenbait kontu argitzea lagungarria litzateke, zalantza barik. Hainbat erataria egin daiteke hori, baina nahikoa litzateke argi adieraztea bat datorrela ezker abertzale zibila egiten ari den bidearekin. Fase honetan bere desagerpena iragartzeko baita espero ezin dena. Euskaldunako otsailaren 7ko ekitaldiaren ondoren, gainera, urak

bere onera etorri behar dira ezker abertzale osoan; han esan eta irudikatu zirenak apurka liseritzekoak dira. Hau lortzen denean, ez da baztertzekoa ezker abertzaleak beste eskaeraren bat egitea ETari. Ezker abertzaleko zuzendaritzak badaki klase politiko osoa barnerratzen ari dela honek ez duela atzera bueltarik, baina badaki baita ere ETari norabide horretan egindako

eskaera batek bere irudia are eta gehiago sendotuko lukeela, bai herritarren aurrean eta baita Sorturi buruz erabaki behar duten epaileen aurrean ere.

Ezker abertzaleko barne sendotasunaren norabidean, halaber, garrantzitsuak izango dira preso munduan ematen diren urratsak. Biziki lagungarria litzateke EPPK-ko ordezkari bat Gernikako Ituneko sinatzaileekin bildu ahal izatea, kontaktu horien bidez EPPK-k itunarekin bat egitea lor daitekeelako. Bake prozesua eta ezker abertzalearen kohesioari begira urrats oso garrantzitsua litzateke hori. Presoen kolektiboak dagoeneko iragarri du “pozik, besoak zabalik eta bidea elkarrekin egiteko prest dagoela”. Ez da hurbilpen txikia. Espainiako Gobernuak, halaber, berriz ere keinu egoki bat egiteko aukera izango luke. Baina orain arteko PSOEren Gobernuaren jarrera ikusita, denak adierazten du ez dela halako urratsik emango Sortu legeztatu arte eta seguruenik ezta hauteskunde osterarte, horrek PPren eraso areagotzea ekarriko bailuke. Ekimen zehatz ugari airean dira oraindik, baina norabidea da garrantzitsua, eta alde horretatik, denborak aurrera egin ahala Prozesu Demokratikoa gero eta indartsuago ikusten da.

PELLO ZUBIRIA

Jakietan daukagu gure eguneroko pozoia

Frantsesezko ARTE katea ikusi ahal izateko zoria daukatenean, martxoaren 15ean daukate aukera ederra, iluntzeko 20:40ean: Marie-Monique Robin-en *Notre poison quotidien* (Eguneroko gure pozoia) eskainiko dute. Ikerketazko dokumental hau *Le Monde selon Monsanto* ahaztezinaren jarraipena dela esatea aski da.

BIZI ITXAROPENA JAISTEN HASIKO DA laster herrialde garatu deituetan, iragarpen gogor hori entzungo zaio dokumentalean Linda Birnbaum doktoreari, National Institute of Environmental and Health Sciences erakundeko zuzendariari, *Notre poison quotidien* filmean. Hori kalkulatzera darama eritasun kronikoak, kantzerrak, gaitz neurodegeneratiboak, ugalketari lotutakoak, obesitatea, diabetesa eta gaixotasun autoimmunenak nola ugari diren ohartzeak. Bigarren Mundu Gerra osteko belaunaldiak pozoien artean bizi direlako, amaren sabeletik hasita.

Ikusi beharreko filma izango da. Ingurumeneko eta elikagaietako pozoiek giza osasunean eragiten dituzten kalteez dokumental ugari egin dira. Honakoa, ordea, *Le Monde selon Monsanto*ren egileak sinatzen du, Marie-Monique Robinek (Frantzia, 1960), eta horiek hitz handiak dira.

Monsantori buruzko *best sellers*z gain, ikerlan inportante haboro plazaratua du. *Voleurs d'yeux* (Begi lapurrak) dokumentalean giza organoen lapurreta eta trafikoaz aritu zen, *Escadrons de la mort, l'école française* azaldu zuen Algeriako gerran militar frantsesek metatutako esperientzia nola esportatu zuten gero Hego Amerikako diktaduretararen eta bestetaren. Eskandaloa eragin zuen Frantzia, eta Argentinan militar batzuen epai-

ketara deitu zuten Robin, lekukotasuna eskaintzera.

Urtarrilean ikusi ahal izan zen *Notre poison quotidien* Miarritzeko FIPA zinemaldian. Geroztik Belgikako RTBF katean eta Suitzako TSRen erakutsi dute, gehi Frantziako zenbait hiritan —tartean Bordele ondoko Bègles— aurkeztu da eta martxoaren 15ean emango du ARTE telebistak.

Le Monde selon Monsanto dokumentalak azaldu zituen kimikagintzari lotutako agroindustriaren barrunbeak. Tartean zekarren ideia nagusi hau: genetikoki aldatutako landare mota berriak funtsean dira beren baitan pestizidak ondo hartu ditza keten izakiak. Film berrian egileak jakin nahi du ea zer nolako eraginak dauzkaten pestizida horiek gure osagarrian.

Bere produktuen toxikotasuna Monsanto konpainiak mende batez nola ezkutatu zuen ohartu ahala, galdera berriak sortu zitzaizkion Robini: “Monsantoren jokabidea salbuespena ote da industriaren historian? Nola daude araututa Bigarren Mundu Gerratik gure ingurumena inbaditu duten 100.000 molekula kimikoak? Ba al da loturarik produktuen kimiko horien eta, Osasunaren Mundu Erakundeak dioen moduan, herrialde garatuetan ikusten dugun gaixotasun kroniko saihesgarrien artean?”.

ARTE katearen gunean *Notre poison quotidien* bloga lantzen du Marie-Monique Robinek, bertan itsatsirik dauka filmean erakutsiko duen irudi hau: kazetaria Jean-Marie Bony-rekin. Hau teknikari lanetan aritu da Probertza eskualdeko mahastizainen kooperatiba batean, eta garatu duen ez-hotzkin motako linfomaren jatorria egotzi diote urte luzez nekazariei banatzeko esku artean erabili dituen pestizidei. Nekazariena pozoiketa akutu bat da, dosi handiei lotua. Filmak, hortik abiatuta, aztertzen du nork, zergatik eta nola definitu dituen pozoien horietatik gainerako herritarrok egunero irentsi eta jasan omen ditzakegun dosiak. Erabakitzaileok dira Ulrich Beck soziologo alemanak “gehieneko kopuruen aztiak” izendatu dituenak *Arriskuen gizartea* liburu famatuan: “Zientzialariak horiek lejitimatzen dituzte haizea, ura eta elikaduraren kutsadurak, eta landareen, animalien eta jendeen gainbehera”.

Erantzunen bila bi urteko lana egin du Robinek. Hori bai, soilik elikadurarekin zerikusia duten gai kimikoetan arakatu du, bestelako pozoiak —ingurumenari dagozkionak, kimikoak eta gainerakoak— bazter utzi ditu. Liburu eta argitalpen zientifikoetan arakatzear gain, toxikologian, biologian eta legezko arauetan aditu diren sorta batekin mintzatu da.

Dosi jasagarrien gezurra

Egunero gizarte industrializatuetan ahoratzen ditugun jakietara pozoiak iristen dira pestiziden, gehigarri edo aditiboen eta jakiak biltzeko plastikoen bidetik. Kimiko horiek pozoien kutsagarriak dira? “Substantzia horiek arriskurik ez balute —erantzuten du Robinek— ez guke horiek zertan arautu beharrik”.

Horien arriskuak aztertu eta arautzeko agentziak sortu dira azken mende erdian mundu aurreratuan. Agentziok finkatzen dituzte gai kimiko batetik egunean zenbat hartu dezakegun, Eguneko Dosi Onargarria (EDO) delakoa. Hain zuzen EDO horiek nola definitu diren aztertzen denbora asko eman du Robinek, noizten dugun kutsadura orokortuaren gakoetako bat horretan datzalakoan.

Brighton-eko unibertsitatean Zientziaren Politika irakasten duen Erik Millstonek adierazi dio kazeta-



riari: “Erabaki arbitrario baten emaitza da, gero kontzeptu sasi-zientifiko bihurtu dena industrialei aitzakia emateko eta politikoak babesteko, adituen atzean ezkutaturik. Eguneke Dosi Onargarria izeneko asmakizuna behar zuten gai kimiko toxikoak usatzeko eskubidea zutela erabaki dutenek”.

XVI. mendean Parazello mediku suitzarrak esandakoa famatua da: “Dena eta ezer ez da pozoia: dosiak egiten du pozoia”. Medikuntzan eta toxikologian asko aipatu da, erabilpen praktiko asko atera zaizkio. Baina adituek erakutsi diote Robini dogma hori ezin dela usatu pozoio modernoekin. Pozoiok egunero barneratzen pilatzen joaten direlako, eta, bestalde, pozoio mordoxka bat

sortzen duten “cocktail eragina” oso inportantea delako.

Azken 60 urteotan nekazaritza industrialean erabiltzen diren gai fitosanitarioak sustraian gerrarako sortutako gasen aldagaiak dira. Lehen Mundu Gerran gizonak hiltzeko usatutako gas klorodunetatik sortu ziren gero DDT eta gainerako gai organoklorodunak. Ondoko urteetan gerrarako gai organofosforodunak asmatu ziren, eta militarrek usatu ez zituztenez, nekazaritza kimikorako birziklatu zituzten.

Horiekin igurtzitako landare, fruitu eta aleak herritarrok kezkarik gabe jan ditzagun asmatu zuten Eguneke Dosi Onargarri famatua. Pozoi bakoitzean dosiak nork nola definitu dituen eta horien erabilera

nork nola kontrolatzen duen ikertu du Robinek. Filmaren aurrerapean eta egileari egin zaizkion elkarriketetan iragartzen denez, dosi horiei buruzko informazio guztia industria kimikoak kontrolatzen du, hasi eta buka.

Filmean tarte zabala dute nekazariak. Hauek eguneroko lanean kopuru handitan iresten baitituzte gero gainerako herritarrok elikagaiekin ahoratuko ditugun pozoiak. Ikusle asko harrituko dira jakingo dutenean Mutualité Sociale Agricole izeneko aseguroak lanbideari lotutako gaixotasuntzat aitortu dituela laborari batzuek dauzkaten eritasun larri batzuk, tartean kantzerrak eta Parkinson gaixotasuna.

Beti lekuko bila, izen eta abizenek aipatzen dira dagoeneko Frantzian epaileek pestizidekin zerikusia zutelakoan lanbide eritasuntzat aitortu dituztenak. Horietako bat zen Yannick Chénét, berriki hila eta Marie-Monique Robinek filma dedikatu diona.

Chénetek hirurogei hektarea gari eta sei hektarea mahasti lantzen zituen, Charente Maritime eskualdean. Leuzemia mieloide bat garatu zuen, borroka luzeen ondoren epailek berretsi zuten, bere laboreetako xomorroak akabatzeko erabiltzen zituen pozoietan zegoen benzenoaren eraginez. Oso ahulduta zegoela, 2010ean parte hartu zuen arrazoi beragatik gaixo dagoen beste base-ritar baten, Paul Françoisen, omeneko ekitaldian, Ruffec herrian.

Paul François honen semeak masakuriko kantzerra omen du. Medikuek esan die “mahastizainaren eritasuna duela”. Alboko kalte bat. ■





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Itxaro Borda

Eroa izan

Rimbaudek zioen: “*On est un peu fou quand on a dix-sept ans...*” Agian hiru-
rogeita hamazazpi urteetan Marian-
ne Faithfullek laudatu Lucie Jorda-
nen antzera hegaldutako gara,
axolagabe, biloak haizeetan. Bitartetan,
bizi-aroak kopetan zimurak eta bihotzean
ubeldurak utziko dizkigu. Ez bakarrik
amodiozko kontuengatik. Adinaren haril-
kak memoria harrotzen dit: hamazazpi
udaberri genituen lehen aldiz *décroissance*
elea entzun genuenean, Etxamendi irakas-
leak 1972ko Erromako Klubak ezagutzera
eman ondorioak bihikatzen zizkigula. Ez
zen arras *décroissance*, *croissance* *zéro* baizik.

Gaia plazara dator gaur. Eko-gudari eta
pentsalari ezkel guztiek ez dute besterik
ahoa. Atzerrietako pantailetan agertzen
da Serge Latouche jauna, garapen ezaren
on-gaitzak aipatuz, azalpenak eskura ditzake-
gun bere liburu ugarietan ereinik. Irudi-
tzen zait petrolio txokerik txoke goazela
xingola xinxilatua dela eta nehoiz bezain
premiazoagoa dugula Latouche *a-crois-
sance* deitzen duenaren gerizpea. Hitza adi-
tzean batzuk malgortzen dira: menskeria
horiek Neandertalen garaira itzularaziko
gaituztela diote, garapena dogma sakratua
dela edo garapenak baizik ez dezakeela
gehiengoaren ontasun-maila berma, paste-
txa handiago, ahotarak halaber. Eta paste-
txa zitala balitz?

Ezagutzen, partitzen, partekatzen, bider-
katzen dugun garapen ekonomikoa kontsu-
mo itsu tarrapatatsuan oinarritzen da. Pres-
tamoe, publizitateak eta gauzen iraungitze
agudoak akuilatzen gaituzte beti eta gehiago
eroatera, irenstera, aurtikitza, eliteko diru-
dunek eredu gutiziatuaren mazalak milika-
razten dizkigutela. Goizetik arrats frustra-
tuak, haserre, jeloskor eta berdin hain
dominatuak gara, sangreatuak, laidoztatuak,
lobotomizatuak, hauteskundeetan demagun
nori bozka ere ez dakigula. Distiratsuena eta
orrolariena bulkatzen dugu boterera. Gure
antzekoa omen, soilik merezi duguna. Etxee-
tan ehorzten gaituzte, ordenadorea aitzinean,
liburu elektronikoa saihetsean, telefonoa
eskuinaldean eta 568 kanaletako telebista
ezkerraldean. Protesi teknologikoak dauzka-
gu buru-muinen orde.



DANI BLANCO

Garapen morbidoaren izenean —dirua
behar da, denbora dirua da bezalako perpau-
sak darabilzkigu eta denbora osorik merka-
tugarri egin digute, librea barne— alde batetik
lana desitxuratzen da, suizidioak eta langabe-
tuak zenbatu ezinak direla dagoeneko, esku-
bideak ezabatzen dituzte, bereziki gazteen-
tzat, eta bestetik munduko aberastasun
naturalak ekoizpen etengabearen zerbitzuko
pribatizatzen dira, hala nola ura, petrolio,
janariak, haziak, lurraldeak, hauekin abilenek
espekulatzen darraitela lotsarik gabe. Plane-
tako jendetzaren herena pobreziatik miseria
gorrira lerratu da hamarkada honetan. Zikin-
degi eta kutsadura: neoliberalen ekarria.

Zergatik neurrigabe kontsumitu? Bi
urteetarik autoz aldatu? Pizinarekiko etxeaz
jabetu? Zaborraragia jan egunean bietan?
Oporretan Karibetan nagitu? Haur hotzei
wii eta *playstation* famatuak oparitu? Zein da



Distiratsuena eta orrolariena bulkatzen dugu boterera.

Gure antzekoa omen, soilik merezi duguna. Etxeetan ehorzten
gaituzte, ordenadorea aitzinean, liburu elektronikoa saihetsean,
telefonoa eskuinaldean eta 568 kanaletako telebista ezkerraldean.

Protesi teknologikoak dauzka gu buru-muinen orde




planetarekiko gure harremanaren funtsa?
Gogoetaz linburtzean, errealitate artifizial
honen absurduak larrutzen gaitu oka egite-
raino, putzuan laster buruz behera eroriko
garela nabaritzen. Baina eskuinak, ezkerak,
elizek eta anonimoez sustatzen dute derri-
gorrezko garapen gizarte monolitikoa.

Arrazoi du Latouche: debaldeko beha-
rrak mugatuz, gurbilki bizitzen hasten bal-
din bagara ez dugu halako diru-falangarik
jasanen eta politikariei, noizbehinka, ezez-
ko borobilak botatuko dizkiegu. Jendeekin
jendeago sentituko gara.

Eroa izan oraino hirurogeita hamazazpi
urteetan. ■

ASTE HONETAKO

zozketa



Atxaspi Hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Bittiria kalea, 24
Lesaka NAFARROA

www.atxaspi.com

1




Tarpoon Urpekaritza

2 harpidedunentzat
"Discover Scuba" saiorako
bina sarrera

Kirol portua, A lokala - 7
Getxo BIZKAIA

www.divetarpoon.com

2



Moroak gara behelaino artean?


Joseba Sarrionandia

2 liburu opari

Pamiela Argitaletxea
Iruñea NAFARROA

www.pamiela.com

3



Inguru Abentura

3 bikoteentzat
espeologia saioa (1. maila)

San Juan kalea, 18
Albeniz ARABA

www.inguruabentura.com

4



Munduko ipuinak

2 lagunentzat opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2265. Argia)

ANDRA MARI

- Kepa Gorordo Basaras (Durango)

THE 44 DEALERS

- Justo Ezenarro Mugaguren (Bilbo)
- Osane Larrañaga Muguruza (Zestoa)
- Iñaki Urutxurtu Fernandez (Antsoain)
- Alex Mungia Idarreta (Donostia)
- Izaskun Elizburu Urkizu (Zarautz)

ILLIMANI

- Xabier Argandoña Gutierrez (Bilbo)
- Juanjo Aduriz Zabala (Errenteria)

ORGASMUS

- Isabel Razkin Lizarraga (Uhart-Arakil)
- Edume Arizabalaga Basterretxea (Ondarroa)
- Juankar Bermejo Mateos (Laudio)
- Agustin Egaña Heras (Bilbo)
- Alberto Ugarte Otazua (Bilbo)

INGURU

- Manu Urruzola Aranzabe (Alkiza)
- Eihar Egaña Garcia (Donostia)
- Patxi Arostegi (Bilbo)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

gizarteak behar dituelako **Emakumeak aurrera**

Udaletan, aldundietan, gobernuetan
unibertsitateetan, sindikatuetan,
enpresetan...

Euskadiko enpresa, instituzio eta
erakundeetako goi-kargudun gehienak
gizonezkoak dira.

**Arlo guztiak,
emakume guztiak**



MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco